

Euskal poesia berria (2001-2011)

(Current basque poetry (2001-2011))

Gracia Quintana, Izaskun

Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia. Miranconcha, 48
20007 Donostia
izaskun.gracia@gmail.com

BIBLID [0212-7016 (2014), 59: 1; 108-145]

Jaso: 2012.09.04
Onartu: 2013.12.15

1. Sarrera

Hiztegian “poesia” bilatuz gero, aurkituko dugu “mintzairaren antzea, zerbait adierazteko hitz neurtuaren, erritmoaren eta hotskidetasunaren armoniaz eta irudiez baliatzen dena”¹ dela. Arterik garrantzitsuenetariko bat eta oro har tradizioz luzeena duen generoa dugu poesia, alegia. Hori dela eta, pentsa daiteke genero horrek irakurle asko dituela eta literatura-merkatuaren maila pribilegiatuan dagoela. Hala ere, ez da hori gertatzen.

Hilda al dago gaur egungo poesia ala idazleek/irakurleek beste genero batzuk nahiago dituzte, poesia baino? Galdera horri erantzun baino lehen, ikus dezagun nolakoa izan den euskal poesiaren bilakaera XX. mendean.

Mende hasieratik 1930era arte, erromantizismoaren ondorengo hiru olerkari garrantzitsu aipa ditzakegu: Emeterio Arrese, Klaudio Sagarzazu eta Koldobika Jaurregi. Idazle horiek zenbait ezaugarri komun dauzkate: alde batetik, lantzen dituzten gaiak (baserri-mundua, erlijioa, aberria...) eta afektibitate-gaitzat har daitezkeenak (haurtzaroa, amarekin izandako harremana eta abar), beti sentiberatasun erromantikoaz tindaturik. Beste alde batetik, erromantizismoan erabilitako ahapaldimota (neurri batean, berritua) erabili zuten: zortzikoa, bertso-lerro pareetan erri-maduna.

Ezaugarri horietan ikus dezakegunez gero, erromantizismoa ez zen oraindik euskal poesiatiak guztiz desagertu. Lizardi edo Lauaxeta bezalako idazleen lanak argitaratu arte ezin da esan euskal poesiak benetako bilakaera izan zuenik. Hala ere, horiek aldaketaren bidea baino ez zuten urratu (esate baterako, Orixek, bi poeta horien garaikidea zenak, Euskal Herriko herri kulturaren zati bat birstortu zuen²). Horrenbestez, Gerra Zibila igaro arte itxaron behar izan zen beste bilakaera garrantzitsu bat egoteko.

1. Euskal Hiztegia: <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>

2. Lourdes Otaegui Imaz, “Poesía vasca del siglo XX”.

Gerra Zibilatik 80ko hamarkadara arte, poetarik garrantzitsuenak honako hauek dira: Jon Mirande, Nietzscheren ideiak bereganatu zituen eta bere lana uto-piara eraman zuena; Gabriel Aresti, poesia sozialaren ordezkaria izan zena; Iratze-der, sentimenduen poesia idazteko Frantziako abesti lirikoa iturri gisa hartu zuena; Juan Mari Lekuona, giza-espiritualtasunaren bila sinbolismo, existentzialismo eta surrealismoa landu zituen; Bitoriano Gandiaga, bere burua esploratzeko eta bere larrimnaz hitz egiteko inpresionismo, kreaionismo eta poesia soziala landu zituen; eta Xabier Lere, eszeptizismoaz eta errealismo handiaz hornitutako poesia soziala idatzi zuena.

80ko hamarkadako poesiaren bilakabidea adierazi zuena eklektizismoa zen, hots, literatura-joera ugari agertu izana, *Pott* taldeak eta *Ustela* aldizkariak bultzatua batez ere. Testuaren autonomia eta esperientzia konpromisoduna garai horretako poesiaren ezaugarri nabarmenenak izan ziren, abangoardien eraginaren bistako seinaleak. Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre, Arantxa Urretabizkaia, Mikel Lasa, Tere Irastorza, Omar Nabarro, Jon Casenave eta beste zenbait izan ziren hamarkada horretako olerkaririk garrantzitsuenak.

80ko hamarkadaren azken urteetatik 2000 urtera arte lehen liburua argitaratu zutenen artean, aipa ditzakegu Pako Aristi, Miren Agur Meabe, Karlos Linazasoro eta Rikardo Arregi bezalako idazleak, 1970 baino lehen jaiotakoak, eta Har-kaitz Cano, Kirmen Uribe, Igor Estankona, Pello Otxoteko, Castillo Suárez eta Ur Apalategi bezalakoak, 1970 ondoren jaiotakoak.

Idazle horien lanetan eklektizismoa berriro berezkoa zen arren, haiek sortutako poesia ez da deskribatzeko erraza. Ez dago mugimenduei edo etiketei buruz hitz egiterik, urte horietan idatzitako lanak oso poetika desberdinei dagozkie eta (urte haue-tan aipatzekoak izan ziren poesia-lanak, beraz, 80ko hamarkadakoak bezain eklekti-koak dira). Bestalde, poesia ez zen jada manifestuak egiteko erabiltzen (aurreko hamarkadekin konparatuz, behintzat) eta inork ez zuen uste gizartearen eragina zuenik.

Gainera, garai horretako literatura-merkatua kontuan izan behar dugu de-rriorrez, poesiaren sorkuntzan eragin handia izan baitzuen. Nahiz eta urte horie-tan aurreko hamarkadan ezagututako poetek idazten jarraitu eta poeta berri batzuk agertu, literatura-merkatutik at geratu zen poesia (genero hori 80ko hamarkadan jadanik bere leku pribilegiatua galtzen hasi zen, dena den). Narratibak bezain sal-menta-kopuru handia ez izateagatik, gero eta poema-bilduma gutxiago argitaratu ziren (Susa izan zen ekoizpen-erritmoa mantendu zuen argitaletxe bakarra) eta bi-garren mailako genero bilakatu zen.

Nabarmen zen poesia gutxiengoan zegoela, baina paradoxaren bidez bizirik zirauela esan dezakegu: merkatuaren legea ez zegokienez gero, poesiak bere bi-dea egin zuen, izaera literarioa zainduz eta hainbat forma ezberdin landuz³.

Horiek horrela, zer espero dezakegu 2001. urtetik aurrera? Nolako da eus-kal poesia milurteko berri honen hasieran? XXI. mendean zehar landuko den lirika

3. Jon Kortazar, *Eguno euskal poesiaren historia*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2009.

aurrez ikusi ezin dugun arren, 2001etik 2011ra azaldutako poeta berriak eta euren lanak ikertzeko gai gara, eta hori egingo dugu ikerlan honetan.

2. Euskal poesia berria

Milurteko berriaren hasieran sortutako euskal poesia berriari buruz hitz egin baino lehen, komentatu behar da XX. mendearen azken hamarkadan bere lehenengo liburua argitaratu zuten poetek 2001. urtetik aurrera izan duten jarduerak. Kontuan hartu behar da poeta horiek ikerlan honetan aztertuko ditugun poeta berrien aitzindariak hurbilenak direla. Horrenbestez, zentzuzkoa da pentsatzea euren lanak idazle berriengan eragina izan duela.

1990etik 2000ra, 33 poetak argitaratu zuten bere lehenengo poema-bilduma. Horietatik bederatzik ez dute besterik idatzi eta bik beste libururen bat argitaratu dute 2000 baino lehen, baina milurteko honetan ez dugu horien berririk. Beste alde batetik, Ur Apalategik, Aurelia Arkotxak eta Mikel Tabernak poesia alde batera utzi eta beste genero batzuk landu dituzte –kasu horretan, beraz, esan daiteke idazle horiek poesiarekin izandako harremana behingo kontua baino izan ez dela.

Gainerakoengandik zortzi (Jon Aiausti, Rikardo Arregi, Igor Estankona, Mikel Ibarburen, Xabier Oloso, Pello Otxoteko, José Luis Padrón eta Castillo Suárez) poesiaz baino ez dira arduratu, eta hamaika dira (Pako Aristi, Josetxo Azkona, Harkaitz Cano, Martin Etxeberria, Karlos Linazasoro, Gerardo Markuleta, Miren Agur Meabe, Juanjo Olasagarre, Asier Serrano, Kirmen Uribe eta Urtzi Urrutikoetxea) poesia zein beste genero batzuk gaur egun arte lantzen jarraitu dutenak.

Ikus dezakegunez, poesiaz bakarrik arduratzen direnek ez dute idazleen heuren bat ere egiten. Eta azken taldea ikertuz gero, Martin Etxeberria da prosaz eta bertsoz liburu-kopuru bera idatzi duen bakarra. Gehiengoek gehiago landu dituzte beste generoak poesia baino eta, batez ere, irakurleen esker ona prosaz idatzitako liburuengatik jasotzen dute. Ematen du, beraz, sortzaileen artean ere poesia gutxiengoan dagoela. Baina, zergatik? Idazle horiek adin desberdinekoak dira, bes-telako erreferentziak, lanbideak... dituzte eta estetika ezbezalakoak lantzen dituzte. Horrenbestez, haien ezaugarri komun bakarra lehenengo liburuaren argitaratzearen data dela aintzat hartuta, poesiatik aldentzen den joera horren zergati komu-nak aurkitzea ezinezkoa da.

Beste alde batetik, merkatuak poesian eragin handia izan du. Lehenago aipatu dugun bezala, orain dela hogeita hamar urte –gutxi gora behera– poesia merkatutik at geratu zen. Horrek alde ona bazuen ere, alde txarrak ere izan zituen. XX. mendearen azken urteak, beraz, ez ziren aproposenak izan poesia argitaratzeko eta horrek nolabaiteko eragina eduki zuen idazteko orduan.

Tamalez, XXI. mendearen lehenengo hamarkadan merkatuaren egoera ez da asko aldatu, poetek beraiek hainbatetan salatu duten bezala⁴. Hori dela eta, ez da

4. [...] *susmoa dugu euskal editoreek ez dutela poesia libururik atera nahi*, Angel Erro, in *Noticias de Gipuzkoa*, 2010eko azaroaren 14an.

harritzekoa suposatzea poema-bilduma bat argitaratzea idazle berrientzat are zailagoa dela (azken finean, ez dira ezagunak eta argitaletxeek ez dute bere dirua arriskatu nahi). Orduan, zer egin dezake idazle batek, bere lehenengo poema-bilduma argitaratu nahi badu?

Jon Kortazarrek adierazten duen bezala⁵, zenbait estrategia daude lehenengo argitalpena lortzeko: literatur sarietan parte hartzea (ziur aski, nor bere burua agertzeko erarik zabalena), argitaletxe txikiek argitaratua izatea (argitaletxe handiek baino liburuaren banaketa eskasagoa dutela kontuan hartuta), antologietan agertzea (poesiaren irakurleei heltzeko erarik onena) eta errezitaldiak egitea (poesia kale-ratzea dute helburua eta harrera ona izan ohi da, bereziki poesia eta musika elkartzen direnean).

Bestalde, autoedizioa eta *plquette*-ak edo kaierak argitaratzea ere aukera eskuragarriak dira. Irakurleek idazle berriak ezagutzeko balio badute ere, bere alde txarra ere badute: alde batetik, autoedizioa ez da maiz egiten Euskal Herrian eta, oro har, autore frustratuen kontua dela pentsatu ohi da⁶; beste alde batetik, Euskal Herriko argitaletxeek kaierak argitaratzeko tradizioa badute ere, oso emaitza onik eman ez duen ekimena da⁷.

Baina irakuleak lortzeko (eta, agian, bere lanak argitaratuak izateko) beste tresna bat badute gaur egungo idazleek: internet. Informazio gizarte honetan, oso baliabide baliotsua dugu sarea⁸. Nahi dugun informazio guztia hor aurkitu ahal dugunez gero, azken urteotan lorbidetako nagusi bihurtu da sortzaile berrientzat, eta jadanik esaten da blog eta webgune espezializatuek literatura-albizkariak betetzen zuten lekua hartu dutela⁹.

Datu horiek kontuan hartuta ere, ez dago orokortzerik eta kasu batzuetan internetek argitaratzeko bidea urratzen duen hipotesia betetzen den arren, ez da posible egiaztatzea hori beti gertatzen denik eta ezin da sarea hartu lehenengo liburua argitaratzeko elementu erabakigarritzat.

5. Jon Kortazar, *Eguneko euskal poesiaren historia*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2009.

6. <http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/erreportajeak/item/autoedizioaz-bi-hitiz>.

7. Emaitza polita izaten dela dio, baina proiektu horiek bideragarri bilakatzea zaila dela ere aitortu du. «Merke saldu edo oparitu egiten den produktua garesti egiten ibiltzen zara azkenean». Kopia merkeak izan arren, azken finean banaketa gastuak eta bestelakoak berdina izaten dira. Esfortzu bat egin behar da halakoetarako. «Oso pieza ederrak dira, baina guri inpultsoa bukatu egin zaigu». Interneteko Armiara sarean dituzte jarrita indarrak orain. «Formula polita da, argitaletxe handiek egiten badute. Gurean, ez dago nahikoa irakurle masa kritiko halako asko egiteko». Ez du 90eko hamarkadakoaren neurririk, baina orain ere badira liburuxka batzuk euskaraz. [...] Oraingoan, hori ikus daiteke dendetan. Xabier Mendigurenek egin du galdera: «Joerak segituko duen? Bada, ezin jakin», Iñigo Astiz, «Irakurzaletasun pilulak», in *Berria*, 2012ko apirilaren 4an.

8. Los círculos literarios han perdido fuerza en los últimos años, y han cedido el poder al mercado, a las editoriales, a los medios de comunicación [...], Iratxe Retolaza, «Ellas escriben» artikuluan, in *El Diario Vasco*, 2008ko maiatzaren 17an.

9. Liburuak argitaratzeaz gain, poesiak genero literario moduan bat izan ditu beste baliabide batzuk; esaterako, aldizkariak izan dira oso garrantzitsuak. Orain gutxi dago eta hauen orde Internet dago. Parekoa da garai batean aldizkariak betetzen zuten papera eta egun blogak edo webguneak betetzen dutena, Juanjo Olasagarre, in *Noticias de Gipuzkoa*, 2010eko azaroaren 14an.

Dena den, literatura-munduan azaltzeko zailtasunak gorabehera, milurteko honen lehenengo hamar urteetan zenbait poeta berri agertu dira (aurreko hamarkadan ia bezainbeste). Lehenengo liburua 2001.etik aurrera argitaratu dutenen artean, ikerlan honetan aztertuko ditugunak 1975. urtetik aurrera jaiotakoak (hau da, 2011. urtean hogeita hamasei urte dituztenak, oro har poeta berri-etiketa iristen den adina) eta 2011. urtera arte bizpahiru liburu argitaratu dituztenak izango dira.

Baldintza horiek betetzen dituzten poetak honako hauek dira: Jon Benito, Leire Bilbao, Xabi Borda, Angel Erro, Jon Gerediaga, Aritz Gorrotxategi, Fertxu Izquierdo, Hasier Larretxea, Txili Lauzirika, Mikel Peruarena eta Beñat Sarasola. Has gaitezen, bada, beren lanak eta ibildideak azterten.

2.1. Jon Benito

1981.ean Zarautzen jaioa, Historia ikasi zuen. *Aingurak erreketan* (2001, Susa) eta *Bulkada* (2010, Susa) poema-bildumak eta *Orbel zaku bat* (2003, Susa) *plaque*-a argitaratu ditu. Vladimir Brigada elkartean parte hartu zuen eta 2000.ean eta 2001.ean literatur iruzkinak argitaratu zituen *Gara* egunkarian. Beste komunikabide batzuetan (esate baterako, *Berrian*) ere idazten du.

2.1.1. Aingurak erreketan

Lehen liburu honetan, Benitok bidaia baten inguruan idatzitako olerkiak eskaintzen ditu. Poema trinkoetatik gero eta poema narratiboagoetara abiatzen da orrialdez orrialde, ea zergatik dauden leku okerrean (erreketan, itsasoan edo ibaian egon ordez) izenburuko aingura horiek asmatzen saiatzen garen bitartean. Esaten eta isiltzen denarekin jolasean, idazlea kontatzen ari denetik urruntzen da batzuetan, ikusle pasibo batek bezala hitz egiteko. Ematen du bere buruarekin hitz egiten duela, lirismo bereziko pasarteak lortuz.

Bere familiari eta oroimenari buruz hitz egiten ere ematen ditu zenbait poema. Iragana, gerra-denbora... poeta lurrari lotzen duen sustraia adierazten du. Hemen *aingurak* argiagoak dira, antza, baina aingura bereziak dira: dagokien lekuan ez daudenez gero, ezin dira denbora luzean leku berean geratu. Horregatik, argazki-bilduma bat bezalakoak dira (nondik datorren gogoratu ahal du, baina mugitzen ere uzten diote). Hau da, iraganak eta oroimenak poema-bilduman bere lekua aurkitu badute ere, etorkizunari buruzko larrialdia are potetsuagoa da.

Bakardadea eztabaidatzeko ere badu denbora autoreak eta bere buruari galdetzen dio ea egia den azkenean, gizonak eta harreman inperfektuen mundu inperfektu honetan bakarrik gaudela. Poeta bere burua munduan kokatzen saiatzen da liburu honekin, beraz. Eta, Ibon Egaña azaltzen duen bezala¹⁰, azkenean adierazten

10. [...] Bideari eta errekarari etengabeko erreferentziak eginez mugimenduaren eta bitalismoaren alde egiten du idazleak, eta, neurri berean, pasibotasunaren aurka. Aurrera jotzeko gonbidapena da liburua; eta bideak helmugak baino garrantzi handiagoa hartzen du [...] Bidea bera da bizitza, bidea da utopia eta bidean bertan dago etxea: [...], Ibon Egaña, "Ibiltariaren galderak", in *Euskaldunon egunkaria*, 2002ko irailaren 7an.

du garrantzitsuena bidaia bera dela, non hasi zen jakitea eta aurrera joateko irrika handia izatea.

2.1.2. Orbel zaku bat

Benitoren hiru lanetatik parentesi moduko bat dugu hau. Beste biak baino laburragoa, bere tonua eta mezua ere desberdinak dira. Hemen ez du bere buruari buruz hitz egiten edota bere barneko mundua aztertzen ere, baizik eta protagonismoa “zu” batek bereganatzen du. Kronika bat balitz bezala azaltzen zaigu *plaque* hau, beraz, bere buruaren bilaketan agertutako uhartearen moduan.

2.1.3. Bulkada

Prosarekiko keinuak eginez eta poesia moldetik ateratzen diren poemak hainbatetan erabiliz, bere buruaren azterketa sakona egiten du poetak liburu honetan. Zazpi atalez osatuta dago eta bertan aipatutako gaia (familia, literatura, Euskal Herriko konfliktua, erbesteartzea, maitasuna, mina edo etorkizuna) islatzen da hainbat poemetan helburu bakar batekin: bere burua ezagutzea. Eta, bere burua ezagutzeko, bere historia ezagutu behar du. Horregatik, bere ahaideak eta sorlekua aztertzen hasten du liburua, geroago azalduko duenaren markoa bilduz.

Poema-bilduma honetan ere erabiltzen ditu Benitok lehenengo eta hirugarren pertsonak bere buruari buruz hitz egiteko: liburuaren lehenengo erdian lehenengo pertsonaz idazten du, bigarren erdian hirugarrenaz (berriz ere, oso pertsonalak diren gauzetatik urruntasuna¹¹ ipinuz) eta, azken poemetan, berriro lehenengoa erabiltzen du.

“Ni” poetiko baten sortzeko eta bilakatzeko ahaleginean, hala ere, itxaropenak ere badu bere lekua. Nahiz eta poetak bere lekua munduan aurkitzen ez duen, liburuaren amaieran ikusten da berriro aurrera jarraitzeko eta amore ez emateko grina.

2.2. Leire Bilbao

1978.ean Ondarroan jaioa, Zuzenbide Ekonomikoa ikasi zuen. *Ezkatak* (2006, Susa) eta *Scanner* (2011, Susa) poema-bildumak argitaratu ditu. Haur literatura ere landu du: *Amonak nobioa du, eta zer?* (2006, Elkar), *Komunean galtzen naiz* (2007, Elkar), *Markel Gelazikin* (2008, Elkar), *Martin, egon geldi* (2009, Elkar), *Garazi Gerezi* (2009, Gero mensajero), *Olagarro bat bainuontzian* (2010, Elkar), *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska* (2010, Erein) eta *Oihana hirian* (2011, Elkar). Zenbait aldizkaritan (*Karmel*, *Bolo Bolo*, *Linterna gorria...*), Euskadi Irratian eta *Deia* eta *Berria* egunkarietan ere idatzi du.

11. [...] maitasunaren bi alderdiak esploratzen ditu [...], eta *Barruranzko bidaia* hasten du, hirugarren pertsonaren babesean: [...], Igor Estankona, “Ezagutzen ez duguna”, in *Argia*, 2010eko abenduaren 12an.

2.2.1. Ezkatak

Lehenengo liburu honetan, ematen du Bilbaok bere lekua munduan aurkitu nahi duela. Horretarako, lau ataletan zehar narrazio-estilo arina duten poemak idazten ditu, esperientziaren kontaketarantz abiatuz. Errepikapen ugarien bidez erritmoa markatuta eta hainbat idazleri buruzko erreferentziak eginda, poetarengan bizi diren “ni” bat baino gehiago azaltzen ditu poema-bilduman.

Noizean behin ezkutatzearen babesaren bila badoa ere, badirudi bere barrua ikertzeko grina indartsuagoa dela, eta, azkenean, bere burua ulertzeko gogoak aurrrera jarraituarazten dio (agian bakardadean gogoeta egiteko behar duen espazioa aurkitzen baitu). Horrela, egunerokotasuna eta detailea gakoak dira Bilbaoren idazkeran, eta gauza txikiak metafora poteretsu bihurtzen ditu, horietatik pentsamendu konplexuagoak adierazteko.


Bilaketa honetan, hiru irudi dira nagusi: itsasoa, maitalea eta odola. Poetak itsasoa erabiltzen du nondik datorren adierazteko. Maitalea, bestalde, oso garrantzitsua da idazlearen barrua irudikatzeke: maitalea da bestea, kanpotik ikusten duena, eta haren begietatik bere burua definitzen saiatzen da autoreak.

Azkenik, odola “ni” adierazteko erabiltzen du poetak. Emakume bezala definitzen duen odola, alde batetik, eta zainetan bor-bor egiten duena, bestetik. Bi odol horiek abiapuntua izango dira, orduan, gorputzari buruz hitz egiteko: gorputzaren mugak, zentzumenak eta hizkuntza, eta mundua ulertzeko eragiten dion gorputza.

Bere burua poeta bezala definitu ordez, pertsona –eta, batez ere, emakume– bezala azaldu nahi du autoreak. Eta, horretarako (eta itsasoarekin zerikusia duen metafora bat erabiliz), bere buruari ezkatak kendu behar dizkio lehenbizi.

2.2.2. Scanner

Leire Bilbaoren bigarren poema-bilduma honen izenburua dugu bere lehenengo irudia, liburu honen bidez bere inguruan dagoen guztia eskaneatzen saiatzen da eta.



Idazlea lirikotasunetik urruntzen da eta narrazioaren gertu dagoen poesia idazten du, hitz joko, errima ariketa eta errepikapenekin apainduz. Noizean behin beste hizkuntza batzuk (ingelesa, gaztelania eta frantsesa) erabiltzen ditu bigarren lan honetan, non minimalismoak ere bere lekua aurkitzen duen.

Sei ataletan banatutako poema-bilduma honek sei gai nagusi jorratzen ditu:

Lehenengo atalean familia dugu gakoa. Haurtzarora begira, Ondarroako bizitza deskribatzen digu lehenengo poemetan. Aitaren absentsia amaren gorespenarekin orekatzen eta familia-harremanen azterketa egiten du Bilbaok.

Nahiz eta lau poema baino ez izan, bigarren atala oso garrantzitsua da “ni” poetikoa lantzeko. Hemengo poemak literatura-erreferentziez betetzen dira, beraien bidez bere bizitzan arteak eta errealitateak izan duten garrantzia azpimarratu nahi izango balu bezala; eta, halaber, aipatzen dituen artistek Bilbao den pertsona erakitzen lagundu dutela adierazten du.

Hirugarren atalean gorputz fisikora itzultzen da autoreak, gorputzaren desioei pertsonarenei baino garrantzi handiagoa emanez. Hori adierazteko animaliekin egindako hainbat metafora agertzen dira¹², bizitza zibilizatu honetan noizean behin gure senei erantzun behar diegunentz bere buruari galdetuz.

Bakardadea eta mina agertzen zaizkigu laugarren atalean, egunerokotasunaz mozorrotuak, eta autoreak errealitatearen eta pentsatzen dugunaren arteko mugeti buruz egiten du gogoeta.

Bere buruaren aurka mantentzen duen borroka honetan “ni” poetikoaren bilaketa berreskuratzen du hurrengo atalean, non garraibideen presentzia nagusia den. Bizitza eta idazkera bidaia direnez gero, taxiak, trenak, hegazkinak... erabiltzen ditu bidaiaren (edo bidaian) metaforak sortzeko.

Azken atalean, bideek (edo ihesbideek) bidaiaren garrantzia bereganatzen dute. Azken atal hau, ezbairik gabe, sinbolikoena da eta adierazten du bere “ni” poetikoaren bilaketa amaitu ez dudala.

2.3. Xabi Borda

1981.ean Azpeitian jaioa, Telekomunikazio Ingenieritza ikasi zuen. *Birika zatiak* (2004, Susa) eta *Gulliverren lokarriak* (2009, Elkar) poema-bildumak argitaratu ditu. Biografia ere landu du *Jotakie – Urolan pop* (2006, Paper Hotsak) liburuarekin. *Uztarria* Azpeitiko herri aldizkarian idazten du.

2.3.1. Birika zatiak

Lehenengo poema-bilduma honek gai nagusi bat du: bakartasuna. Milikieratik urrunduta, sakontasunez eta seriotasun handiaz hasten du Xabi Bordak bakardetik abiatuta egiten duen bidaia. Hasiera-hasieratik aipatzen du birika zatiak faltatzen zaizkiola eta, horrela barruko hustasunak haragiztatuz, hasten du ibilbide poetikoa.

Errepikapen ugari dituen bost ataleko liburu hau poema laburrez beterik dago, non tradizioak eta gaurkotasunak bere lekua hartzen duten. Hemengo poesia berez klasikoa ez den arren (surrealismo arina ere ikus daiteke hainbat poematan), naturalismoa erabiltzearen klasizismoa badaukate poemek. Ibaia, mendia, zuhaitza (noizean behin bere buruarekin parekatzen duena), erreka, txoriak... eta eguraldia ere aurkitzen ditugu hemen. Horrek guztiak, urtaroen joan-etorriarekin bat

12. [...] *ni* poetikoaren gorputza jartzen zaigu lehen planoan: ama izateko adinean omen dagoen gorputza ageri zaigu hasieran, baina sexuarekin lotuta azaltzen da gorputza poemarik gehienetan, sexua izaten edo sexua desiratzen. Animaliak behin eta berriro ikusten ditugu poemotan [...], Leire Lopez Ziluaga, “Erdibidean”, in *Berria*, 2011ko urriaren 16an.

eginda, tradizioarekin jolasten duen poesia ez-tradizionala sortzen du, non existentzialismoaren itzala ere noizean behin ikus dezakegun.

Ez da hori, hala ere, kontrajarren bakarra. Bordak kontrajartzen ditu egunerokotasuna eta irudimena, natura eta petrolio, metal, asfalto... bezalako elementuak, bakardadea eta hainbatetan agertzen den “zu” idealizatu hori eta garrantzitsuena: gertatzen diren “orain” eta “hemen”, eta bere burua kokatzen duen etorkizun hipotetikoa, oraindik esateko zerbait badaukala adieraziz.

2.3.2. Gulliverren lokarriak

Bigarren liburu honetako poemak luzeagoak eta narratiboagoak dira aurreko liburukoak baino. Hala eta guztiz ere, lantzen diren gaiak ez dira aurrekoan landutakoetatik asko aldentzen.

Erritmoak eta musikak markatutako lan honetan, poetak literatura klasikoaren erreferentzia egiten du liburuaren izenburuan, liburuan landuko duen gaia irudikatzen hasteko: Gulliver lurzorura lotzen zuten lokarriak errealitatera lotzen gaituzten hariak dira. Aldamenetik kendu ezin dugun hori guztia dira hari horiek, aldi berean harrapatzen gaituztenak eta behar ditugunak.

Poema-bilduma honetan, beraz, egunerokotasuna eta horri dagozkion lekuak aurkitzen ditugu, arreta etxearen geletan (sukaldea, logela, komuna...) ¹³ bilduz. Bartzuetan, badiirudi unibertsoa sortzen saiatzen dela etxea eta etxearen barrua komentatzean, baina aldi berean pentsa daiteke bere inguruan ikusten duenaren ispilu baina ez dela. Ispilu horretan, baina, osotasuna alde batera geratzen da eta gauza txikiak dira garrantzitsuenak.

Bestalde, melankonia eta asperdura edo ajea bezalako sentimenduak azaltzen ditu poetak, zientziarekin zerikusia duten hiztegiarekin lan eginez. Horrela, matematika, anatomia, astronomia eta geologia hitzek leku berezia dute lan honetan, non itsasoaren aipamenak egiten diren panorama naturalistagoa sortzeko.

2.4. Angel Erro

1978.ean Burlatan jaioa, Zuzenbidea ikasi zuen. Iruñako Udaleko poesia lehiaketaren lehenengo saria irabazi zuen 2000an *Eroria* lanarekin. 2001ean Euskalgin-tza Elkarlanean Fundazioaren Joseba Jaka literatur-beka lortu zuen, *Eta harkadian ni* (2002, Elkar) poema-bilduma idazteko. Bere bigarren poesia-liburua, *Gorputzeko humoreak* (2005, Alberdania), Euskarazko Kritikaren Saria lortuko zuen. Volgako Batelariak blogan hartzen du parte, beste zenbait euskal idazlerekin, eta hainbat libururen itzultzaile egin du lan. *Argia* bezalako aldizkarietan ere idazten du.

13. [...] pentsa dezakegu modernitatearen espazio paradigmatikoa hiria baldin bazen, akaso postmodernitatearena –edo dena delakoarena– etxe barrua dela –askotan aipatzen diren ezlekuekin batera, esan gabe doa–, Beñat Sarasola, “‘Spleen’ eta ‘ennui’”, in *Berria*, 2009ko azaroaren 22an.

2.4.1. Eta harkadian ni

Epigramek eta eglogeak osatutako liburu neoklasizismoa eta estetizismoa nagusi dira. Hala ere, -ismo hauek unibertsalak diren hainbat gairi buruz hitz egiteko erak baino ez dira. Epigramen laburtasun, zorrotasun eta ideiak adierazteko indarrean eta eglogen elkarriketan aritzeko teknikan aditua, poetak maitasun (eta maite ezin), erotismo, literatura mundu eta inguru soziopolitikoari buruz garatzen du liburu atipiko hau. Beti ironikoa eta zinismoaren mugan abiatuz, maitasuna ulertzeko gramatika erabiltzen ez duenean, bertso-lerro barregarriak eratzen edo gaztelania eta euskara nahasten ditu Errok, hainbeste idazleren aipamenak eginez.

Erreferentzia horiek adierazten dute autoreak kultura klasikoa eta gaur egungoa oso ondo ezagutzen dituela eta bere apaltasuna ere erakusten digute. Hortxe dugu, beraz, izenburuko *harkadiaren* zergatia: Arcadia Greziako hiria da, historikoa izan zena antzina bere biztanleek (pelasgoek) Espartaren hegemoniaren aurka egin zutela kausa. Leku berezia dugu Arcadia, bada, baina Angel Errok *harkadia* bihurtzen duenean, bere burua idealtasunaren bidean jartzen du, berak adierazten duen bezala (*Denak Arcadian bizi dira, / eta Harkadian ni*)¹⁴.

Berak badaki dena esanda dagoela, baina zerbait esateko daukala sentitzen du, eta horregatik idatzi du poema-bilduma. Ez daki mira egiten dien artean egongo denik, baina, badaezpada, ondasuna utziko du liburu honetako hitzen bidez.

2.4.2. Gorputzeko humoreak

Aurreko liburuan gertatzen zen bezala, izenburuan adierazten du Errok lehenengo jolasa. Gorputzeko umoreak –hau da, likidoak, medikuntzaren historian odola, karkaxa, behazun horia eta behazun beltza direnak– *humore* bihurtzen ditu eta izen berriak ematen dizkie: melankolia, hazia, odola eta tinta.

Bakoitza liburuko atal bat adierazteko erabilia, poetak itxura klasikoa duen poema-bilduma eskaintzen digu. Lan osoa jolas bat da, non tradizio neoklasikoan sakontzen duen eta klasizismoa berridazteko zein berrirakurtzeko estetika eta poetika berriak proposatzen dituen. Epikaren poetika berria da, hain zuzen ere.

Hori lortzeko aurkitzen du Errok inspirazioa hainbat iturritan: musikariak, idazleak, politika, tradizioa...¹⁵. Denak balio du poemak idazteko eta poetak bere ideiak eta gaiak garatzeko.

14. [...] arestiko idazleak Arcadian ziren, hots, zoriontasunaren eta lasaitasunaren lurrean poesia klasiko nahiz Berpizkunde garaikoaren arioren; idazlea, berriz, harkadian, erran nahi baita harritzan. [...] Axularren, Etxeberri Sarakoaren, Arestiren, Atxagaren [...], Sarrionandiaren oihartzunak, Kirmen Uriberen eta Castillo Suarezren aipuak, bertzeak bertze, hor daude ohargarri, Aingeru Epaltza, "Musen eskolako euskal eskola", in Nabarra, 2004ko otsailean.

15. [...] bigarren poesia liburu honetan tradizio neoklasikoaren erreferentziak (Walkington, Michelangelo, Poliziano eta abar) beste hainbat tradizio literarioekin gurutzatzen dira: ahozko euskal literatura (Mikel Laboa), euskal literatura klasikoa (Bertand Zalgiz, Axular), Europako abangoardiak (cadavre exquis), kultura politikoa (eta haren lelo zenbait), telebistako kultura (Jessica Fletcher), sareko kultura (google), pop kultura (Nosotrăsh, Brubeck) eta abar, Iratxe Retolaza, "Ut traditionis et transgressionis", in Berria, 2006ko martxoaren 28an.

Arte eta edertasunaren iragankortasuna, gaur egungo politika (11S-a, gerako haurrak...), maitasuna, literatura, sexua... lantzen ditu poetak liburu hone-tan hainbat baliabide (ironia, jolasa, esperpentoa, errepikapenak...) erabiliz eta sen-tsibilitate handia erakutsiz. Gaztelania eta euskara nahasiak ere ikus ditzakegu orri hauetan, sentimenduen katalogoa egin nahi izan balu bezala.

2.5. Jon Gerediaga

1975.ean Bilbon jaioa, Antropologia Kulturala ikasi zuen. *Fitola balba, karpuki tui* (2004, Pamiela) eta *Jainkoa harrapatzeko tranpa* (2007, Pamiela) poema-bildu-mak agitaratu ditu. Bigarren liburu horrek Kritika Saria irabazi zuen eta Espainiako Sari Nazionaleko finalista izan zen. Bilboko Antzerkiola Imaginarioan aritu zen 1998. eta 2006. urteen bitartean dramagile eta ikerlari gisa. *Bart* kultur aldizka-rian eta Holandako *Ni Ta Tum* poesia kaieran kolaboratu du.

2.5.1. Fitola balba, karpuki tui

Lehenengo liburu honek hiru atal ditu: *Side one*, *Side two* eta *Off the record*. Mu-sika-euskarri "klasikoen" (hau da, betiko disken edo kaseteen) egitura hori ez da bakarrik azalean geratzen, baizik eta poemen banaketan ere ikus daiteke. Horrela, lehenengo eta bigarren ataletan azalduko ditu poetak gehien interesatzen zaizkion gaiak eta hirugarren atala erabiliko du gehigarri bezala idatzitako poemak erakus-teko.

Heriotzak leku berezia du lehenengo atalean, non hutsunea eta bakardadea ere oso garrantzitsuak diren. Goibeltasun horren jatorria izan daiteke lagun hilak uz-ten duen hustasuna, joan den maitasuna edota jainko laguntzailerik eza, baina po-etari berez interesatzen zaiona sentimendu horri erantzun bat ematea da.

Surrealismoak lagunduta, giro arrotza azaltzen du bigarren atalean. Hor ere izenburu arraroaren jatorria agertzen da: "Fitola balba, karpuki tui" atzerriko hitzei (hau da, arrotza den edo ulertzen ez duen munduari) ematen dien erantzuna da. Hizkuntza poetiko berria sortzeko ahaleginak hainbat galdera sortzen ditu: poesia al da munduari eman dakioken erantzun bakarra? Badu poesiak mundu honetan irtenbiderik?...

Hirugarren atala erakusten du Gerediagak ironiaz eta identitateari buruzko galderaz jantzita. Hala ere, identitate (euskal identitate, bereziki) horri buruzko ez-tabaida erabiltzen du errealitatea komentatzeko. Ilusioak eta ametsak hiltzen di-tuen errealitate horrek garrantzia dauka poetarentzat, baita jainkoaren faltak eta geure barruan hustasun bat sortzen duenak ere.

Poema-bilduma honetan zehar nagusi da estilo narratiboa, baina, era berean, poemak eta bertso-lerroak hainbat eratan antolatzen eta eratzen dira. Errepikapen asko daude, beste hizkuntza batzuez (portugesez, gaztelaniaz, ingelesez eta lati-nez) idatzitako bertso-lerroak agertzen dira noizean behin, antzerkiari egiten dio begi-keinua eta, batzuetan, ematen du poetak idazkera automatikoa darabilela. Hala eta guztiz ere, esperimentazio handiko liburu honek batasun handia ere badu.

2.5.2. Jainkoa harrapatzeko tranpa

Poema-bilduma honen izenburua aurreko liburuko azken poemari egindako erreferentzia zuzena dugu.¹⁶ Baina, liburu honetako hiru atalen izenak irakurtzean, konaturatzen gara naturara begiratzen duen poema-bilduma dugula. Eta, naturaren mugimendua eta zikloak aintzat hartuta, naturaren erritmoari jarraituz garatzen da gizakiaren bizitza.

Ematen du ideia abstraktuak islatzeko idazten duela. Gizakiak gizaki bihurtzen duen guztia (eguna eta gaua, ona eta txarra) bizi behar du, gizakia izan dadin. Horretarako, jainkorik gabeko mistizismoa eratzen du Gerediagak, non jainkoaren ordezkariak garrantzia duen eta erreferentzia klasiko eta mitologikoak ugariak diren. Hori erabiltzen du poetak mitoei errealitatea ezkutatzeko duela eta jasan ezin dugunetik ihesbide bezala erabiltzen ditugula adierazteko.

Hori adierazteko, autoreak esperimentazio bidean jarraitzen du. Hausnartutako eta hausnartzeko poesia eskaintzen du, beraz, espresio poetikoaren bila aurrera egiten duen bitartean. Neoklasizismo arina ikus daiteke espresio moldean, baina berriak, gaurkotuak, teknika berriei birmoldatu nahi izango balu bezala.

Poetak errepikapenekin eta hizkuntzekin (nederlandera, ingelesa eta gaztelania aurki ditzakegu) egindako jolasak ere eskaintzen baditu ere, azken poema irakurri arte itxaron behar dugu liburuko behin betiko jolasa ikusteko. Bildumako azken pieza da hitz poetiko berria sortzeko azken ahalegina. Edo, agian, guztiz aurkakoa, adierazpen berria sortzeko aurkerarik ez dagoela esaten duena.



2.6. Aritz Gorrotxategi

1975.ean Donostian jaioa, Zuzenbidea ikasi zuen. *Taxi bat Hamlet-entzat* (2002, Hiria), *Zaldi hustuak* (2007, Erein) eta *Hariaz beste* (2011, Erein) poema-bildumak idatzi ditu. Narrazioa (*Egurra Pinotxori* –2002, Alberdania), eleberria (*Kafkaren labankada* –2001, Kutxa; *Irun Hiria saria irabazi zuena*–, *Kearen truke* –2005, Alberdania– eta *Axola ez duenean* –2009, Alberdania), kronika (*Galtzontziloak autobusean zintzilik*, –2002, Erein), gidoiak eta literatur eta zinema kritikak idazten ditu.

16. *Hutsik dago basoko bidean / jainkoak harrapatzeko tranpa. / Banan-banan erori dira zuloan / ikonoak, egurrezko bizarrak / arketipoak, urrezko tripak / pergaminoetako letra larriak. / Eta basoko bidean / jainkoak harrapatzeko tranpak / hutsik jarraitzen du*, Jon Gerediaga, *Fitola balba, karpuki tui*, Pamiela, 2004.

2.6.1. Taxi bat Hamlet-entzat

Lehenengo poema-bilduma hau oso lan atipikoa da, urte berean beste euskal poeta batzuek argitaratuekin erkatuz gero. Bertan poesia narratiboa da nagusi eta argi geratzen da hasieratik liburu osoa jolas bat dela. Poema-bilduma honen atal bakoitzak tonu berezia eta ezbezalako ezaugarriak dituen arren, guztietan aurki ditzakegu metaliteratura, parodiak, pentsakizun sakonak, aipamen kulturalak (kulturalismoaren presentzia bereziki handia da lan osoan), poesiari buruzko hausnarketak eta abar.

Perspektiben aniztasuna da liburu honen beste ezaugarri bat. Beste garai batzuetako beste leku batzuetan dauden pertsonen begiekin ikusten da mundua, baina horren helburua ez da geu garenetik aldentzea, baizik eta berez berdintzen gaituena erakustea. Hitzaren eta isiltasunaren arteko lotura nahitaezkoa da idaztearen zailtasuna (edota ezintasuna ere) azaltzeko, baita nostalgia eta tragedia aipatzeko ere. Horrela, txikienetik handienera eramaten gaitu Gorrotxategik, geu garenen irla den mundu galdu baten fantasian.


2.6.2. Zaldi hustuak

Liburu honetan aurrekoan aurkitutako hainbat ezaugarri badaude: literatura-, kultura- eta jazz-erreferentzi anitz, mitoak eta mundu klasikoa, bizitzaren eta heriotzaren arteko kontrajartzea, isiltasuna, itsutasuna...

Izenburuan bertan eskaintzen digu autoreak lehenengo metafora eta lan

osoan izango den konstantea: zaldia. Gabriel Arestiren harria bezala hitz egiten du zaldiari buruz, Euskal Herriaren irudi bihurtuz. Amets betetako zaldi hori eta euskal mina bereak dira, azkenean, baina badago bere barruan min desberdin bat, Nerudaren eta daramagun maskaren aipamena egiten duenean.

Poema filosofiko askoz gain, ironia eta eszeptizismoa ere presente daude liburuan, egia bilatzeko tragediaz aritzen denean batez ere. Ematen du poetak argitasunaren bila joaten dela etengabe; azken finean, argitasunaren eta iluntasunaren arteko borroka bizitza bera da eta¹⁷. Baina idaztearen mina ere agertzen da hemen. Hitza, kaligrafia... erabiltzen ditu ea idazten den guztia betikoa den bere buruari galdetzeko, baita itxaropenari buruz gogoeta egiteko ere.



17. [...] liburuia amaierara arte zeharkatzen duen obsesio bat aurkezten du Gorrotxategik, beraz: heriotza bere baitan duen jaiotzarena, edo bizitza bere barnean duen hustasunarena, Ibon Egaña, "Bizitik hutserra, hutsetik bizia", in *Berria*, 2007ko ekainaren 3an.

2.6.3. Hariaz beste

Liburu honek aurreko bi poema-bildumekin ezaugarri komun asko ditu (mundu klasikoa eta mitoak, bizitza-heriotza erkaketa, gurutzatutako hainbat erreferentzia...). Hala eta guztiz ere, eta trilogia baten aurrean gaudela¹⁸ pentsarazten digun arren, lan independente bezala ere irakur eta uler daiteke.

Hari batetik zintzilik dagoen mundua erakusteko, poetak poemen estiloa apur bat aldatzen du. Era askotako poemak agertzen dira (ez beste liburuetan bezain klasikoak), narratiboak eta kriptikoak aldi oro txandakatuz. Metaforarik handiena den harria erabiliz, poetak gidatzen gaitu galderez betetako eta erantzunik gabeko mundu batera. Beraren aburuz, funanbulistak bezala gabiltza bizitzan, eta horregatik harri iraunkorrak behar ditugu bizi-seinale, etxerako (edo egiarako) bidea ez ahazteko. Bere buruari gizakia zer den galdetzen dion bitartean, konturatzen da bizitza gero eta pisutsuagoa dela, eta jakiteak ematen duen mina desagertarazteko ahanztura dela erantzuna.

2.7. Fertxu Izquierdo

1975. urtean Iruñean jaioa, Hispaniar Filologia ikasi. *Gerratearen aztarnak* (2007, Pamiela) eta *Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek* (2009, Alberdania, 2008.eko Blas de Otero Bilbo Hiria nazioarteko poesia saria jaso zuena) poema-bildumak eta *Mendeko borroka (Assalto a Roma)* –2008, Pamiela– eleberria idatzi ditu. Zenbait aldizkaritan (*Egan*, *Txantrean Auzolan*, *Aldapa*, *Letras e Ideas* eta *Nabarra*) idatzi eta Euskal Herria Irratian eta Eguzki Irratian esatari egin du lan.

2.7.1. Gerratearen aztarnak

Poema-bilduma honen hasieran Roque Daltonen *A la poesía* olerkia asmo-adierazpen bezala azaltzen zaigu. Daltonek bere buruari ea poesia salbatu ahal gaituen bakarra den galdetzen dion bitartean, Izquierdok hiria –eta, bereziki, Iruñako Txantrea auzoa– protagonista duen liburu honetara sarrarazten gaitu, hiru eremu nagusi lantzearen bidez: maitasuna, gerratea eta hiria¹⁹.

Alkholez betetako leku zikin eta ilun bezala azaltzen da autorea bizi den lekua. Subjektu poetikoa erromantikoa da guztiz, eta maitasunaren bidez bere lekua bilatzen duen subjektu moduan aurkezten da. Noizean behin patuak harremanak kudeatzen dizkigula ematen duen arren, poetak badu itxaropena eta espero egiten du etorkizunean bere zoriaren jabea izatea.

18. [...] ematen du egileak eman diola nolabaiteko amaiera bere poesigintzari, itxi duela nolabaiteko trilogia poetikoa bat, Juan Ramon Makuso, "Entzuteko denbora", in *El Diario Vasco*, 2011ko maiatzaren 6an.

19. [...] hiru eremu hauek landu dira: diskurtso lirikoa (maitasun poema eta sentimenduek gainez egiten dute), diskurtso epikoa (gerratearen mundu imaginarioa erabiltzen du eta gerratearen hiztegiz poemak janzten), eta diskurtso urbanoa (hiriaren espazioez eta hiri-kulturaz erreferentziaz bete ditu poemak), Iratxe Retolaza, "Ezinen poetika", in *Berria*, 2007ko apirilaren 18an.


Portugesez eta gaztelaniaz idatzitako zenbait bertso-lerroren, era askotako metrikaz sortutako poemen eta hiriko erreferentzien bidez, periferiatik egindako poesia aurkitzen dugu lan honetan. Poesiari izaera unibertsala emateko nahia ikusten da poema-liburu honetan eta, horretarako, munduan sufitzen diren hainbat konfliktuen erreferentziak egiten ditu Izquierdok. Irak, Israel, Palestina... aipatzen ditu autoreak Euskal Herriko konfliktuari buruz ere gogoeta egiteko, gudak edozein lekutan berdinak direla eta edonork sentitzen duen mina berbera dela adieraziz.

2.7.2. Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek

Bigarren liburu honetan, teilatuak, kaleak eta hirian aurki daitezkeen hainbat elementu daude, baina, aurreko poema-bilduman gertatzen ez zen bezala, hemen jorratzen den giroa da, batez ere, etxekoa (eguneroko errutina, detaile txikietatik ikasi ahal dugun guztia...).

Giro idealizatu batean inguru abstraktua eraikitzen du poetak, non auzoko bizimodua (poza, tristura, bizitza, sexua, heriotza...) egunekoaren lau uneen inguruan komentatzen den: goiza, eguerdia, arratsa eta gaua erabiltzen ditu Izquierdok, bada, bere ideiak egituratzeko.

Ematen du bizitza modernoaren abiadura azaldu nahi duela eta, horretarako, naturari buruz hitz egiteko aurkitzen du denbora. Azken finean, liburuaren izenburuan agertzen diren txoriak hirian galdutako natura horren irudia baino ez dira.



2.8. Hasier Larretxea

1982. urtean Arraiozen jaioa, Gizarte Langintza ikasi zuen. 2001.eko Iruñeko Udaleko poesia lehiaketako lehen saria irabazi zuen *Eguraldi lainotsua* lanarekin. *Bazaudete?* (2004, Metaziri) *plaque*-a, *Azken bala / La última bala* (2008, Point de Lunettes) eta *Atakak* (2011, Alberdania) poema-bildumak idatzi ditu. *Koult* aldizkarian eta beste medio batzuetan idatzen du.

2.8.1. Bazaudete?

Lan honetan maitasuna gai gako bezala azaltzen zaigu. Egunerokotasunean sentitutako minatik idatzitako bertso-lerroak dira, non oroitzenak behin eta berriro erabiltzen diren galdutako “zu” horri abstraktuki deitzeko.

Poema-bilduma honetan ikusten dugun giroa hirikoa da, ilusioak apurtzen dizkigun eta maitasuna hil egiten digun hiria krudel, arrotz eta etsaitasunezkoa, non autoreak bere lekua aurkitzen ez duen. Horrelako lekuan, poeta konturatzen da berak eta bere inguruan daudenek egiten duten gauza bakarra denbora galtzea dela eta, hori dela kausa, liburuaren beste gai garrantzitsu bat da denbora: galtzen duguna, nahi duguna egiteko ez daukaguna... eta garrantzitsuena, aldatzen gaituen eta eboluzionarazten diguna.

2.8.2. Azken bala / La última bala

Bi hizkuntzaz argitaratutako eta idatzitako liburu hau gatazka biren isla dugu: alde batetik, hainbat urtetan Euskal Herrian izandako konfliktuak eta, beste alde batetik, nork bere buruarekin daukana. Horiek horrela, poema laburrak eta zehatzak idazten ditu autoreak, bere ideiak zuzentasunez eta argitasunez adierazteko erarik egokiena bilatuz.

Gizarte osoari dagokion arazo bati buruz hitz egiten duen arren, ematen du poema-bilduma honen bidez berez egiten duena garbiketa pertsonala dela, aspaldi hausnartutako jarrera hartze beharrezkoa. Heroiaren epika dogmak beste dogma batzurekin apurtzeko joera ere badira bere kritikaren objektuak, Euskal Herriko konfliktuak sortutako hainbat paradoxa eta kontraesanak salatzen dituen bitartean.

Ideologiek kutsatutako gizartea agertzen da orduan, arteak garrantzia galdu duen eta diskurtso hutsez betetzen den leku hotz bezala. Poema politikoak idazten ditu Hasier Larretxeak, baina ez ideologikoak, oso poesia humano, sozial eta konprometitua lortu arte.

2.8.3. Atakak

Poema-bilduma honen bidez, beste estetika bat eraikitzen du poetak. Lan honek hainbat eratako poemak aurkitzen ditugu: haikuak bezalako olerki laburrak, detailez beteak eta apur bat kriptikoak, batzuetan, eta luzeak, ia narratiboak, beste batzuetan, azalpenak eta hausnarketak analogietan bilatzen diren bitartean. Sinboloek eta kontu handiz landutako irudiek (poesia bisualarekin egindako jolasaren bat, adibidez) ere bere lekua dute poema-bilduma honetan.

Formaren aldetik autoreak bere ahots poetikoa bilatzen duen bitartean, gaiaren aldetik ere aldaketa handia egon da Larretxearen ibilbidean. Poesia soziala alde batera utzita, bi munduren artean kokatzen da autorea eta naturak eta hiriak dituzten ezaugarri komunak eta aurkakoak aurkezten dizkigu²⁰.

Lekukotasun geografiko hori bere burua kokatzeko hainbat elementurekin (sua, liburuak, Baztan, natura, itxaropena...) aberasten du, aspaldi irudikatutako irudiak eta hausnartutako sentipenak orainaldira ekarri. Baina, aldi berean, emoziotik idatzitako poema-bilduma honetan²¹ autoreak aztarnak ematen dituzten po-

20. Alde batetik, mundu modernoa edukiko genuke. Objektuek osatzen dute mundu hau eta idazleak objektuen pilaketaren bidez itxura kaotikoa ematen dio mundu horri. Mundu moderno horretan lekuak eta ezlekuak nahasten dira, biak maila berean, gizakiaren esparru naturala bien artean banatuta egongo balitz bezala. [...] Mundu horri kontrajarrita, herrixkan egiten den bizitza agertzen zaigu, erreferentzia biografikoz horniturik dirudiena, idazlea Baztango herrian jaioa dela kontuan hartuta. Mundu hau askoz ordenatuagoa da, baina ordena mantentzen duten arauak konbentzionalak dira, formalitate hutsek, Javier Rojo, "Leku bila", in *El Correo*, 2011ko azaroaren 19an.

21. [...] Larretxeak emozioa jarri dio liburuari, transmititzen jakin du zein presente egon daitekeen ausentzia, zein bizirik heriotza, zein barruan kanpoko, zein hurbil urrunekoa... Zein zehatza izan daitekeen inoiz gertatu ez zenaren memoria, eta nola izan gaitezkeen, zerebroko tranpetan, inoiz izan ez garena, Igor Estankona, "Nola atera atakatik", in *Deia*, 2011ko azaroaren 19an.

emak baino ez ditu idazten, osotasuna lortzeko irakurlearen interpretazioa eta konplizitatea eskatuz.

2.9. Txili Lauzirika

1975. urtean Lekeition jaioa, *Euriaren mailukadak* (2003, Apokalifitin Kultur Elkartea) eta *Tatuaia bat ene begietan* (2008, Susa) poema-bildumak idatzi ditu.

2.9.1. Euriaren mailukadak

Irudiek (borroka eta tentsioa adierazten dituzten argazkiek, marrazkiek eta eskulturek) lagundutako liburu honek poesia militantea du ezaugarri, lehenengo orrialdean agertutako eskaintzak eta frantsesez idatziriko testuak²² adierazten duten bezala. Kritika soziala egiteko asmoarekin (liburuaren amaieran guantxeraz idatzitako esaldiak²³ liburuaren izaera borrokalaria gogorarazten digun bezala), behin eta berriro aipatzen dira matxinada, komisaldegí, titularra, demokrazia, unformatu... bezalako hitzak. Euskal Herriko konfliktuak azaltzen bada ere, poetak unibertsal bihurtu nahi ditu politika-arazoak eta historia klasikoko konfliktuetara itzultzen da horretarako.

Lehenengo orrialdean erabilitako frantsesaz gain, noizean behin ingelesa, gaztelania eta portugesa ere erabiltzen ditu poetak. Hala eta guztiz ere, liburu honen estiloa ez da bat ere berriztatzailea. Gaur egungo poesia idazten du, baina bere ideiak adierazteko era berezirik bilatu gabe. Oro har ematen du idazleak mezuari formari baino garrantzi handiagoa eman nahi izan diola, eta, horrenbestez, adierazpenen erraztasuna nagusi da poema-bilduma osoan.

2.9.2. Tatuaia bat ene begietan

Liburu hau helduagoa eta landuagoa da. Poema batzuk abesti bezalakoak dira, beste batzuk anaforetan oinarritzen dira eta beste batzuk, aldiz, amaierako biraketa bat dute ezaugarri. Errepikapenak eta gurutzatutako erreferentziak²⁴ ere behin eta berriro agertzen dira, bildumari behar duen batasuna emanez. Ariketa estilistiko horretan, non liburuak azken poemak lan osoa laburtzen duen, fantasia eta mitologiarekin zerikusia duen irudi-kopurua (Alice, Transilvaniako beleak, Andromeda, Hamlet...) sortzen du poetak borrokari eta maitasunari buruz hitz egiteko.

22. *On dit ainsi encore / une fois dans / le croisement / de la rebellion. // Enfant terrible, lotsagabe, in-korrektu, borrokalaria eta erradikal guztientzat bihotzez*, Txili Lauzirika, *Euriaren Mailukadak*, Apokalifitin Kultur Elkartea, 2003.

23. *NERNU KRAWALWEN! (Zutik jarraitzen dugu!)*, Txili Lauzirika, *Euriaren Mailukadak*, Apokalifitin Kultur Elkartea, 2003.

24. [...] *isiltasuna, mututasuna, adierazi ezina; oroimena, distantziako gutunak eta telefono deiak; zapiak edo musuzapiak, malkoak edo anpuluak; ateak eta leihoak, arrakalak eta zirrikituak; katu maite-minduek gauean, zakur uniformeek uluak, sagutxo ikaratuak, herensugeak; utopia, eztandak, kristalak eta haizea; patrikak eta behe lainoa, bataila galduak (ametsak)*, Ion Olano, "Laranja urdinak", in *Gara*, 2009ko apirilaren 10ean.

Borroka horretan denbora azaltzen zaigu elementu gakoa bezala. Idazleak badaki ilusioen eta ametsen garaia pasatu dela eta inguratzen duen guztia hondamendia dela. Gizarteko gaiak jorratzen dituen arren, batzuetan badirudi autoreak bizitzaren lariduretatik eta sufrimendutik ihes egin nahi duela, bizitzaren ikusle izan nahi izango balu bezala. Barne-lasaitasuna nahi du poetak eta, hori lortzeko, bere gogoetak konpartitzen ditu irakurleekin²⁵.

Era berean, lasaitasun hori lortzeko agertzen da maitasuna bere burua salbatzeko bide bakarra, kontraesan handia sortuz: hondamendia dela kausa ilusioa eta utopiak desagertu diren mundu honetan, maitasuna azaltzen da hondamendiari aurre egiteko eta borroka horren gainean utopia berri bat eraikitzeko.

2.10. Mikel Peruarena Ansa

1978. urtean Ereñotzun jaioa. *Eguraldiaz hizketan* (2003, Elkar) eta *Edan ase arte* (2006, Kutxa Fundazioa, Irun Hiria olerki saria irabazi duena) poema-bildumak idatzi ditu. *Ez obeditu inori* (2009, Susa) eleberria ere argitaratu du. Xabier Gantzarainekin batera, *Testuketan irratsaioa* egiten du astero Herri Irratian.

2.10.1. Eguraldiaz hizketan.

Liburu honen hasieran bertan bi detaile berezi eskaintzen dizkigu Mikel Peruarenak, irakuleari alde aurretik esateko eskuan daukan poema-bilduma nolakoa den. Alde batetik, Unai Iturriagaren aipuarekin²⁶ egiten dugu topo, non poesia eta eguraldiaren arteko erkaketa egiten duen, poesia benetako arazoak ez komentatzeko aitzaki bat baino ez dela adieraziz.

Beste alde batetik, autoreak adierazten du lehenengo poeman²⁷ liburu honetan dagoena poesia “normala” ez dela; hau da, berak ezin du egia edertu edota lengoia liriko batez idatzi. Idazleak egin dezakeen gauza bakarra bere sentimendu huts eta biluziak erakustea da. Dena den, Peruarenaren poemak irakurtzen ditugun neurrian, konturatzen gara hasiera horretan esandakoa guztiz egia ez dela.

Mezua forma baino garrantzitsuagoa da liburu honetan, bai, baina ezbairik gabe ez dago esaterik artifiziorik edo ezaugarri poetikorik gabeko lana denik. Horrela, bertso-lerro luze eta narratiboek osatutako poema-bilduma honetan errepikazioak, oso irudi interesgarriak eta gaztelaniaz idatzitako hainbat lerro eskaintzen dizkigute.

25. Bere bizipenak, oroitzapenak, desioak, iritziak, ilusioak, atsekabeak... berreskuratu nahi ditu olerkiotan, Patxi Sarriegi, “Errealitatearen behelainozko begiradak”, in *Deia*, 2009ko otsailaren 24an.

26. Eguraldiari buruzko berriketak izan ohi dituk igogailuetako lehenengoak; kalean halakorekin gurutatu eta minutu batetik gora egin gura ez denean erabiltzen den gaia izan ohi duk eguraldia; ezer konkreturik esan gura ez denean, edo zer esan jakiten ez denean duk eguraldia mintzagai, “Zelan? Ba, hemen” esatea lakoa duk gertakari meteorologikoak ahotan hartzea. Beharbada horregatik izango dik geroz eta tarte handiagoa telebista eta irratiak albistegietan eguraldiak, zer esan handirik ez dagoelako, edo esateko dauden hamaika gauza ez esateko, Unai Iturriaga, *Eguraldiaz hizketan*, Elkar, 2003.

27. Hauek ez dira olerkiak / hemen ez duzu / sormen lanik aurkituko [...] hemen ez duzu / nahiko zenukeen hitz joko ederrik topatuko [...] Hau ez da hitz jolasa / hemen formak berdin dio, Mikel Peruarena Ansa, *Eguraldiaz hizketan*, Elkar, 2003.

Poetak errealitatea ulertzeko egiten dituen ahaleginak dira bere poemak, eta hasierako maitasunezko olerkietatik amorrua, tristezia... adierazten dutenetara igarotzen da poliki-poliki. Bere buruari ere galdetzen dio ea zertarako idazten duen, bizi den munduak merezi ez badu. Hainbeste konfliktori buruz egiten du gogoeta, eta burtsa, ekonomia, inflazioa... bezalako hitzen bidez adierazten du gaur egungo gizartearen gaitz nagusia, itxaropenarentzako lekua ia utzi gabe.

2.10.2. Edan ase arte

Bigarren poema-bilduma honetan ere erabiltzen du autoreak hasierako aipu bat aurrrerapen eta izenburu legeaz. Kasu honetan, Bertol Brecht-en bertso-lerroetan²⁸ aurkitzen dugu poetak egiten duen liburuaren laburpena.

Poetak badaki bizitza bizitzen, zorionekoa eta aske izaten saiatzea beharrezkoa dela, baina ez dugu baikortasunik ikusten, berak adierazpen hori egiten duenean. Poeta, aitzitik, konturatzen da bizitzak erremediorik ez duela eta basamortu bat balitz bezala aurkezten du, non guztiok nomadak garen eta beti bakarrik gauden.

Poetaren arabera, bizitzaren ezaugarriak honako hauek dira: etsipen, desesperantza, gorrotoa, tristura, zorionik eza, itsustasuna, argirik eza... eta ez dago existentzia horretatik salbatzen gaituen utopiarik. Maitasuna, laguntasuna... ez dira aski bizitza aldatzeko edota gu pozik bizi izateko.

Peruarenaren (eta, noski, Bertol Brechten) aburuz, bada, bizitza gehiegi da guretzat. Bizi nahi dugu, baina bizitzak gaituzten gaitu²⁹.

2.11. Beñat Sarasola

1984. urtean Donostian jaioa, Filosofian eta Literatur Teoria eta Literatura Konparatuan lizentziatu zen. *Kaxa huts bat* (2007, Susa) eta *Alea* (2009, Susa) poema-bildumak idatzi ditu. *Berria* egunkarirako literatur kritikak idazten ditu eta *Argia* bezalako aldizkarietan ere idazten du. 2008tik 2009ra *Hitz egiteko modu bat* bloga³⁰ landu zuen.

2.11.1. Kaxa huts bat

Lehenengo liburu hau poesiaren heriotzarekin hasten da.³¹ Hala eta guztiz ere, poesiaren amaierarekin batera, poesia-mota berriak bilatzeko beharra agertzen da.

28. Bizitza ez da huskeria, / edan ase arte beretik, / ez da aski izango / galtzear zaudelarik, Bertol Brecht, *Edan ase arte*-an, Kutxa Fundazioa, 2006.

29. [...] bizitzaz eta bizitzatik edatea ez dela aski norbera borbere baitan eta baitatik galtzear denean. Poesia, hitzarekin batera, ez da aski ere, bizitzeko nahia handia, edo handiegia, denean. Baina beharrezkoa da [...] bizitzeko eta bizitzako minak handiak, edo handiegia, direnean, Felipe Juanisti, "Bizitzaz", in *El Diario Vasco*, 2007ko abenduaren 21ean.

30. <http://bsarasola.wordpress.com>

31. Poesia hilda dago eta ni izan naiz, sarjentu jauna. / [...] Esan poesia hilda dagoela, / esan ni izan naizela, Beñat Sarasola, *Kaxa huts bat*, Susa, 2007.

Horrenbestez, poesia idazteko ariketak diruditen hainbat poema idazten ditu autoreak. Neurri askea, poema narratiboak, erritmo-aldaketak... edozein gauzak balio du formaren eta edukiaren arteko oreka lortzeko.

Horrela, edertasuna bilatzeke eta estilo eklektikoa (erreferentzia kulturalak anitzak dira eta metaliteratura eta metahizkuntza behin eta berriz azaltzen zaizkigu) eta hizkera arrunta³² erabiliz, bere inguruko errealitatea interpretatzen saiatzen da idazlea.

Ironia eta umorearen bidez maitasuna analizatzen du, eszeptizismo apur batekin. Sentimenduak adierazteko ezintasuna azaltzen zaigu orduan, baita maitatuaren (des)idealizazioa³³ ere. Bestalde, maitasunaren amaieraren zergatiak garrantzia du poema-bilduma honetan, eta Sarasolak bere buruari galdetzen dio ea maitasuna amatatzen dutenak geu garen ala errutina eta kanpotik datorrena sentimendu horren heriotzaren errudunak diren.

Hala ere, behin eta berriz agertzen den gaia norberaren (edo idazlearen) errealtatea eta identitatea aurkitzeko ahalegina dugu. Horretarako, poetak bere belaunaldiari buruz hitz egiten du maiz, gaur egungo kultura pop-eko hainbat erreferentzia eginez. Berak adierazten duen bezala, ematen du belaunaldi horrek gehiegi pisatzen duela, ez diola eboluzionatzen uzten, eta bere buruari galdetzen dio ea belaunaldi horrek berarentzat sortzen duen zoria onartu behar duen.

Gainera, Sarasolak esaten du bere belaunaldikoek ezeren aurka borrokatu eta ezer sufritu ez dutela, eta, horrenbestez, ez duela ezertarako balio. Horregatik ez du bere belaunaldikoaren artean egon nahi, eta gaurko errealitateetik ihes egin nahi du atzoko errealitatea eta ilusioa bilatzeko.

2.11.2. Alea

Liburu honetan aurrekoan aurkitu genituen gai berberak azaltzen zaizkigu, baina gai horiek adierazteko era guztiz desberdina da. Lau ataletan banaturik, ematen du Alean aurkitutako poemak esperimentu baten fruituak direla, hau da, autoreak bere ahots propioaren bila eta kezkatzen duten gaiak jorratzen jarraitzen duela.

Lehenengo atalean poemarik esperimentalenak daude, non erritmo apurtua, bertso-lerro askeak, joko fonetikoak, beste hizkuntza batzuek idatzitako hitzak eta abar era kaotiko batean nahasten diren. Noizean behin ulertezina dela ematen duen arren, laster batasuna eta oreka berezia aurkitzen ditu irakurleak, baita surrealis-moz eta ironiaz idatzitako hainbat ideia ere.

Liburuan aurrera egiten den neurrian, bestalde, estiloa aldatzen da poliki-poliki, bertso-lerroak betez eta poema landuagoak eginez (nahiz eta irudiek nahiko

32. [...] edertasuna bilatzen duen poesiak ez du leku handirik (edonola ere, zer da edertasuna hone-lako mundu batean?) eta idazleari aukera bakartzat planteatzen zaiona errealitatearen kronika egiten duten poemak egitea da. Hori lortzeko, hizkera zuzena eta narrazioaren mugan dauden testuak erabiltzen ditu, Javier Rojo, "Poesiaren amaiera", in *El Correo*, 2007ko urriaren 10ean.

33. Oroitzen naizenean / zu ez zara edonor, / abesti erromantikoak ere sinets ditzakegu / promes egiten dugunean / zintzoki estreinakoz. [...] Emakume baten etsipena / betirako errepikaturik. / Edonor zara zu, Beñat Sarasola, *Kaxa huts bat*, Susa, 2007.

surrealistak izaten jarraitzen duten). Horrela, bigarren eta hirugarren ataletako poema narratiboetatik azken ataleko prosa poetikora heltzen gara.

Lan honetan ere erreferentziak nagusi dira, eta irudien ordeztu erabiltzen dira berriro.³⁴ Autoreak bere identitatearen bila doanez gero, bere belaunalditik at birlatzen du berari buruz esaten duten beste iturri batzuk: hizkuntzari lotuta daude hiritartasuna³⁵ eta hiritartasun horri lotutako marko postmodernoa³⁶.

3. Poeta berrien analisisa

Hirugarren milurtearen hasieran argitaratutako liburuak iruzkindu ondoren, beren egileen ezaugarriei buruz hitz egiteko ordua da, zertan datozen bat jakiteko.

3.1. Ezaugarri komunak

Alde pertsonalean, esan dezakegu poeta guztiek jatorri bera dutela, gutxi gora behera: guztiak jaio ziren Franco hil ondoren (hau da, demokrazian hazi ziren), euskaraz ikasi zuten –Fertxu Izquierdo izan ezik– eta hiri edo herri handi batean bizi dira –Hasier Larretxea eta Mikel Peruarena Ansa herri txikietan jaio arren, laster egoitza aldatu zuten–. Lanbide desberdinak badituzte ere, bestalde, unibertsitateko ikasketak egin dituzte guztiek eta –Xabi Bordak izan ezik– letrak-arloan aritu dira.

Literaturari buruzko artikulua edo kritikak idatziz kolaboratzen dute hainbeste komunikabideetan, eta, nahiz eta teknologia berrien *boom*-a ezagutu duten eta interneteko aroan bizi diren, ematen du bide birtual hori asko aprobetxatzen ez dutela –ezin ditugu poeta horiek guztiak Facebook-en aurkitu, horietako bik baino ez dute *twitter* kontu bat, eta Fertxu Izquierdo, Mikel Peruarena Ansa eta Beñat Sarasola dira blog pertsonala duten bakarrak, esate baterako, eta orain dela denbora luzea ez dute erabili–.

Plazerrarengatik idazten dute. Poeta gehienek ez dute liburuak saldu behar bizitzeko; horrenbestez, literatura-merkatuan modan dagoenak ez die eragiten eta askeak dira nahi dutena eta nahi duten eran idazteko, hau da, esperimentalak izateko.

Literatura-taldeek ere, idazle horien kasuan, ez dute garrantzi handirik. Horietakoren batek (Jon Benitok edo Angel Errok bezala) denboraldi batez talde ba-

34. *Idea*, irudi batek zerbait ebokatzen dio idazleari eta ebokazioz ebokazio, irudien bidezko mosaiko zirriboratu bat sortzen du poema bakoitzean, Javier Rojo, "Poesia ariketak", in *El Correo*, 2009ko ekainaren 13an.

35. Hiritartasuna sentimendu bat da, hiriko eguneroko bizimoduari lotuta dagoena. [...] Hiritartasuna, era berean, modernitatearen sinonimo da, eta modernitate gureak bere irudiak, bere ikonoak eta bere begiradak ekarri ditu. [...] Biak ala biak, hizkuntza eta errealtatea, oso loturik daude, eta bereiztezinak dira liburuan, Felipe Juaristi, "Errealtatea", in *El Diario Vasco*, 2009ko apirilaren 3an.

36. Eta marko postmoderno horretan arrapaladan datoz pentsamenduak, ez du astirik ematen analisirako, helburua ez da subjektua, baizik eta objektuaren deskripzioa egitea: gaur egungo bizitza eta patroiak eza. [...] Erritmoa liburuak berak markatzen du, hiriak markatzen duen bezala hiritarren erritmoa, Igor Estankona, "Lehenengo utopien ostean", in *Argia*, 2009ko maiatzaren 17an.

tean parte hartu arren, ez dago esaterik hori ezaugarri erabakigarria denik bere liburua argitaratzeko edota beren buruak ezagutzera emateko ere.

Beste alde batetik, batzuek zenbait literatura-sari irabazi dituzte, baina hori ez da gakoa izan bere lanak argitaratzen hasteko.

Aldizkarietan edo egunkarietan egiten dituzten kolaborazioak alde batera utzita, ikus dezakegu gutxi gora behera erdiak beste genero batzuk landu baino ez dituela. Horiek horrela, idazlerik emankorrenak dira Aritz Gorrotxategi (narrazioa, eleberria, kronika, gidoiak eta kritikak idatzi dituena), Leire Bilbao (haur literatura landu duena) eta Jon Gerediaga (zenbait antzerki-lan idatzi dituena). Fertxu Izquierdok eta Mikel Peruarenak eleberrri bana idatzi dute eta Xabi Bordak, aldiz, biografia bat. Besteek, momentuz, poesia baino ez dute lantzen.

Aipatzekoa ere bada talde horretan emakume bat baino ez dagoela. Aurreko hamarkadan azaldu ziren poeta berriekin gertatzen zen bezala, argi dago literatura-genero honetan idazle gehienak gizonetakoak direla. Azken urteotan literatura-munduan zenbait emakume gazte agertu diren arren,³⁷ ematen du horiek narrazioa (ipuingintza eta eleberria) batez ere lantzen dutela. Ez dugu lan horretan gehiago sakonduko (ikerlan honen helburua ez baita), baina zalantzarik gabe horri buruzko ikerketa egin behar izango litzateke etorkizunean.

3.2. Gaiak

Poeten estiloa eta gaiak aztertu baino lehen, aipatu behar dugu guztiek duten ezaugarri bat: postmodernitatearen ondorengo literatura bizi eta lantzen dutenez gero, badakite dena esanda dagoela eta gaur egungo lirikari eskatzen zaiona lehen baino zorrotzagoa dela. Hala eta guztiz ere, oztupo hori baztertzea bere poesiaren helburu bat bihurtu dute (Angel Errok³⁸, Aritz Gorrotxategi³⁹ eta Beñat Sarasolak⁴⁰, esate baterako, adierazi dutenez).

Postmodernitatean hazitako autoreei dagokien bezala, poeta guztiak ez dotoz bat gai guztietan (adibidez, Beñat Sarasola da poesiaren heriotza planteatzen duen bakarra), baina ezbairik gabe badaude idazle guztiek (edo ia guztiek) erabiltzen dituzten zenbait gai:

37. [...] la mayoría de los autores en euskera que se han estrenado en los últimos dos o tres años son autoras, escritoras que rondan los treinta años –algunas todavía de lejos– y que, por lo general, han tenido una excelente acogida por parte de los lectores y parecen haber llegado con la intención de quedarse, algo que no siempre ha ocurrido con las escritoras de generaciones precedentes. Eider Rodríguez, Castillo Suarez, Irati Jimenez, Leire Bilbao, Irati Elorrieta, Garazi Goia, Katixa Agirre, Uxue Apalaza o Uxue Alberdi y sus respectivas obras [...] son, en primera instancia, la prueba de que algo está pasando, Nerea Azurmendi, in *El Diario Vasco*, 2008ko maiatzaren 17an.

38. Oro errana da, aspaldidanik. / Oro errana dela ere errana da. / Oro errana da, bada, ezinbestean. / Oro errana da, baina ez nik, Angel Erro, "X", *Eta harkadian ni*, Elkarlanean, 2002.

39. Dena esanda dago, / baina ez entzunda. Aritz Gorrotxategi, "Post Scriptum", *Hariaz beste*, Erein, 2011.


40. Postmodernitatearen konnotazio eskuindarra eta erabat erlatibista adibidez, ez zait interesatzen. Baina beste ikuspuntu batetik, oso interesgarria iruditzen zait postmodernitatea proiektu moderno eta askotan totalitarioei egindako kritika bezala, Gorka Bereziartuak egindako elkarrizketan, in *Argia*, 2007ko irailaren 2an.

3.2.1. Nork bere burua ezagutzea

Hauxe da poetek gehien lantzen duten gaia. Betiko galderak (nor naiz ni? Zer egingen dut hemen?) erantzuteko beste gai batzuk erabiltzen badituzte ere, idazle guztiek beren burua eta munduan duten zeregina ezagutzeko premia larria sentitzen dute. Beñat Sarasolak bere poemetan adierazten duen bezala⁴¹, belaunaldi honetako idazleek ez dute borroka egiteko gerrarik, ongizatean bizi dira eta ez dute bere eskubideak defendatzeko beharra izan. Horrenbestez, beren burua definitu behar dutenean, beste bide batzuk bilatu behar dute.

3.2.2. Familia / jatorria

Familia edo jatorria erabiltzen dute poetek beren burua deskribatzeko: jatorrira itzultzea, oroimenak adieraztea. Nora doazen esaterik ez badaukate, gutxienez nondik datozen jakingo dute. Horiek horrela, iragana ezagutzeko hainbat ariketa egiten dituzte; esate baterako, Leire Bilbaok bere gurasoen bizitza eta erlazioa jakitera ematen ditu⁴², Jon Benitok bere familia euskalduna eta erdalduna aztertzen du⁴³ eta Hasier Larretxeak geografiarekin eta berarentzat garrantzitsuak diren elementuekin jorratzen ditu testuak.



3.2.3. Ni poetikoa

Poetek “ni poetikoa” ere erabiltzen dute beren burua deskribatzeko (edota aurkitzeko ere). Pertsona-poeta dualtasuna azaltzeko, hizkera poetikoa aurkitzeko, beren lekua munduan zehatzeko... liburu bakoitza esperimendu bezala erabiltzen dute.

41. Gure belaunaldiak ez du deus balio [...] Ezin izan ditugu gurasoak akabatu; [...] Gu iristerako Historia amaiturik zegoen eta Arteak, berriz, gure aurrekoek hil zuten. [...] ez da existitzen eskola literario-rik haien kontra joateko [...] Utopia eta ideologiak ere, bestetik, ez dute lekurik gaur egun. Gure belaunaldiko inor ez da eromenez, gosez akabatuko. [...] ezin izan gara apaizen kontra oldartu. [...] Gure belaunaldiak, gainera, ez du diktadurarik ezagutu, ez dugu demokrazia besterik bizi izan. Gure belaunaldiak ereklamazio orriak ditu eskura bere kexak bideratzeko, Beñat Sarasola, “Gure belaunaldia”, Kaxa huts bat, Susa, 2007.

42. Gogoia neukan ni sortu ninduteneko momentuaren inguruko imajinazio ariketa egiteko. [...] Oso teknika zaharra da, autofikzio ariketa bat egin dut, gauza asko egiazkoak badira ere saiatu naiz jendeak erreala edo gertukoa sentitzeko moduan ematen. [...] Gainera atal hori [“Amaz erditu naiz”] ‘ama hilda dago baina ez naiz ni izan’ esanez amaitzen da, Sarrionandia gogoan. ‘Aita hil’ esaten du jende guztiak, nik berriz ‘ama ere hilda dago eta ez naiz ni izan’, Leire Bilbaori elkarrizketa, in Hitzen Ueberan, 2011ko urriaren 13an.

43. Nire hizkuntzak / ez du aita ulertzen, / baina ulertzen dut aita. / Nola da nire, / nola gure, / aitarekin baliatu ezin dudana? / Nire hizkuntzak, / norekin, / ez du zubi egiten. / Nire hizkuntzak / jende guztiarekin ulertarazten nau / gehiagorekin inkomunikatzeko. / Nire hizkuntzak / gutunak atzeratzen ditu, / kartzelako patioa da. / Nola lotzen gara / ama hizkuntza ez bada / aitaren hizkuntza?, Jon Benito, “Aita hizkuntza”, Bulkada, Susa, 2010.

3.2.4. Inguru soziopolitiko

Bizi diren mundua ulertzeko ahalegin horretan, poetek nahitaez bereganatzen dute eragiten dien inguru soziopolitiko. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriko egoera politikoa bere poemetan agertzen den arren (Hasier Larretxearen *Azken bala* eta Txili Lauzirikaren *Euriaren mailukadak* liburukoenetan⁴⁴, batez ere), oro har gai hori unibertsaltasunaz jantzen da⁴⁵, mundu mailako arazoari buruz hitz egiteko (agian Patrick Geddesek esandako *Think global, act local* esamoldea eredu gisa hartuz, gaur egun hainbeste giroan gertatzen den bezala).

3.2.5. Utopiarik eza

Gaur egungo giartearen ezaugarri nagusia dugu utopiarik eta itxaropenik eza. Edo, hobeto esanda, horixe da gaur egungo poeta gehienek uste dutena. Eta, horrenbestez, bizitza bizi behar delakoan daude. Nahiz eta patua aldaezina dela ere uste duten⁴⁶, orainaldia hobetzeko aukerak daudeneko ideari eusten diote (Horazioren *Carpe diem* esamoldeak adierazten duen legez).

Ikuspegi horrekin batera, jainkorik eza ere aurkitzen dugu ikertutako poema-bildumetan. Inor ez da ausartzen jainkorik ez dagoela esaten, baina jainkoaren bilaketa behin eta berriro agertzen da beren liburuetan, Jon Gerediagak "Poema infinitoa"ⁿ⁴⁷ adierazten duen bezala. Noizean behin ematen du jainkoa aurkitu nahi dutela itxaropen moduko bat izan ahal izateko, baina, aldi berean, pentsa daiteke jainkorik eza ere egiaztatu nahi dutela.

3.2.6. Maitasuna

Literaturan edozein garaitan gehien landu den gai bat dugu maitasuna, noski, eta argi zegoen gaur egungo poetek ere landuko zutela. Baina hemen azaltzen zaigun maitasuna ez da idealizazioak sortutako edo datorrena datorrela lortu nahi den sentimendua, baizik eta egunero sentitu ahal den beste edozein sentimentu baltz bezala lantzen da. Ekar diezazkigun gauza onak onartu egiten dira, baina poetek ez dute arazo guztien erremediotzat hartzen, ezta bizi-helburutzat ere.

44. Berrehun mila biztanleko lehergailua / Hori omen da gure Euskal Herria eta Bart / berriz ere / euskal militante politiko bat / jipoitu dute espainiar kartzelariak, / mendetako maskarada krudel honetan babesturik, Txili Lauzirika, "200.000" eta "Kontaezinak", *Euriaren mailukadak*, Apokaliftin Kultur Elkartea, 2003.

45. Dubrovka antzokian zure begi goibelak [...] eta Gazako zerroa zure beheko betazeletan [...] aberri salduak ginen Gernikako zuhaizpean / eta Kurdistanen banandu giztuzten bost zatitan / horrela ezagutu genituen yankien bonbak Iraken / edota gosearen oinazea Ankarako espetxeetan / baina ez gintuzten banandu / eta Habanan elkarrekin egin genuen topo, Fertxu Izquierdo, *Gerratearen aztarnak*, Pamiela, 2007.

46. Horrela izan omen da [...] gauzak aldatuta ere, / horrek ez du, / eguraldiak bezala, / aldatzeko bateretere itxurarik. / Hiltzen jarraituko dugu, / justiziarekin edo justiziarik gabe, Mikel Peruarena Ansa, *Edan ase arte*, Kutxa Fundazioa, 2006.

47. Jainkoaren bila. Jainkorik ez da. Jainkoaren bila. Jainkorik ez da. Jainkoaren bila. Jainkorik ez da. Jainkoaren bila. Jainkorik ez da [...], Jon Gerediaga, *Fitola balba, karpuki tui*, Pamiela, 2004.


Gainera, maitasun hori minaren ondoan agertu ohi da askotan. Harreman baten amaiera, uzteak sortzen duen atsekabea... mila bidez jorratu diren gaiak, bai, baina beste ikuspegi batetik. Bihozmina, orain, ez da munduaren amaiera, baizik eta bizitzak dakarren beste bizipen bat. Horrenbestez, esan daiteke aurreko belaunaldiko poeten lanetan ikusitako zorigaitza desagertu dela gaur egungo idazleen lanetatik.

Maitasun-sentimendu horri maiz loturik agertzen den beste gai bat sexua da. Poeta hauen lanetan zenbait poema erotiko aurkitzen baditugu ere, oro har sexua bizitzaren zatia legeazaltzen zaigu. Hau da, naturaltasun osoz hitz egiten dute hari buruz, harreman batean izandakoa (Leire Bilbaoren kasuan bezala⁴⁸) edo metafora gisa beste gauza bat adierazteko erabilitakoa⁴⁹ den aintzat hartu gabe.

3.2.7. Bakardadea / heriotza

Maitasuna aurkitzen ez delako⁵⁰, bizitzari nahitaez loturik dagoen sentimendua delako⁵¹ edo horri buruz go-goeta egitea beharrezkoa delako (Xabi Bordaren kasuan bezala), bakardadea maiz agertzen da poeta hauen liburuetan.

Batzuetan, sentimendu hori heriotzari loturik azaltzen da, berez interesgarriak diren hainbat elegia sortuz; esate baterako, Angel Errok e-mail/poema idazten du⁵² eta atsekabearen aringarri bihurtzen du heriotza Aritz Gorrotxategi⁵³. Baina heriotza bizitzari eta gure existentziari loturik dago, eta horrelaxe ere adie-



48. *elurra ari du / larrua jotzen dizudan bitartean*, Leire Bilbao, "Animaliak ohean", Scanner, Susa, 2011.

49. *Masturbatzen ditut isiltasunak / gaueko lentzeria beltzetan / erromantizismo pornografikoak maskaldurik / masturbatzen ditut oroitzapenak [...]* eta *oihukatzen ditut izenak / alkohol tanta galduetan amil-durik / masturbazio prozesu delirante honetan*, Fertru Izquierdo, Gerrateraren aztarnak, Pamiela, 2007.

50. *Baina zein den luzea bidea, / egarria eta ur putzuaren arteko / distantziarik kalkulu zehatzik ez denean, / zein den luzea bizitza desertuan / gero eta barrurago sartu ahala / gero eta isolatuago sentitzen zarenean / eta hondarra ezterrian kabiak egiten / hasi zaizula nabaritzen duzunean*, Mikel Peruarena Ansa, "Egarria desertuan", *Edan ase arte*, Kutxa Fundazioa, 2006.

51. *izan zenituen / geografia aztertzeko mapak eta / distantzian sentitzeko betaurrekoak / udazkena aurrreratu ahala / baina ez zaitez arduratu azala berritu bazaigu / hau bakardadearen eboluzioa da / ez beste ezer eta Kontu sakonak bururatu zaizkigu / antzinako batailez oroitu gara / bibliografia zaharrak kontsultatzen diren eran / eta begiak non bildu bilatzen egon gara / Urdaila nekez eta bakardadez bete zaigu / bidegurutzerantz iritsi arte*, Jon Benito, "Destaina" eta "Hautu txikiak bidea egiten du", *Aingurak erreketan*, Susa, 2001.

52. *Hildakoek ez dute e-mailik / jasotzen baina idazten ahal zaie. [...] Gaur zure heriotzaren berri / eman dit inigok, triste. [...] Nahi dut hitz Hajek ustel daitezen / zure sarrera zerrendan, harrituak / beren edukiaz eta beren patuaz. / Nire hil bat zara. Gaurtik aurrera / maite zaitut*, Angel Erro, "Maitasun poema", *Gorputzeko humoreak*, Alberdania, 2005.

53. *Badakit aitarekin joateko dela, / bere eskua eta zurea. / Badakit urte luzez hil zarela / bizion oinen gainetik, urdin. [...] Halere, ez galdetu zergatik baina... / Jada ez zaude bakarrik*, Aritz Gorrotxategi, "Ez zaude bakarrik", *Hariaz beste*, Erein, 2011.

razten dute poetek: tristurarik gabe, bizitzaren zati dela ulertuz (Hasier Larretxeak, adibidez, egiten duen bezala⁵⁴).

3.2.8. Hiritartasuna

Hiriak (espazio geografiko eta gaur egungo gizartearen sinbolo bezala) ere bere lekua du hirugarren milurtekoaren hasierako poesian. Lehen aipatu dugun legez, iker-tutako idazleek hiri batean eman dute bizitza osoa (edo denbora luzea, behintzat) eta horrek poemetan eragin handia izan du. Hiriaren seme-alabak dira, baina leku horrekin duten harremana, oro har, ez da ona.

Arrotza eta hotza da hiria idazleentzat, eta batzuetan badirudi nahikoa ez dela⁵⁵, gerra baten tokiari buruz hitz egiten dugula⁵⁶ edota ihes egin ezin dugun eta gaitz egiten digun organismoa ere dela⁵⁷. Beste leku bat bilatzea, aitzitik, ez da proposatu ere egiten; horregatik pentsa daiteke poetek hirian bizitzea onartzen dutela, beren patua balitz bezala.

3.2.9. Gaurkotasuna / egunerokotasuna

Lehen esan dugun legez, poetek ez dute utopian sinesten eta, horrenbestez, ez dira etorkizunaz kezkatzen. Hori dela eta orainaldian kokatzen dituzte poemak, gaur egun bizi diren gizartearen edo duten bizimodua erakutsiz, aurreko belaunaldiko poetek egiten zuten moduan⁵⁸.

Horri loturik, beraz, agertzen zaigu egunerokotasuna. Gizartearen, hiria, herrialdea... denak handiegia dirudi eta beren burua ezagutzeko edo beren lekua munduan kokatzeko, egunerokotasunera eta toki txikietara jotzen dute poetek. Gauza txikietan edo, hobeto esanda, gure inguruan dauden gauza normaletan, hau da, apaltasunean⁵⁹ bilatu egiten dute bizitzaren zentzua.

54. *Bizitza / beste heriotzen / hutsa eta Heriotzak baino / ez gaitu / desberdint(tzen)duko*, Hasier Larretxe, Atakak, Alberdania, 2011.

55. *Hiria txikia glditu zait / eta haren karrikek itotzen naute / sokari gehitzen dizkiot zentimetroak / bal-koiek zelatzen dituzten / urrats grisetan / eta apurtzen ditut lorontziak / nire tristuren leihotik eroriak*, Fer-txu Izquierdo, Gerratearen aztarnak, Pamiela, 2007.

56. *Hiriko anonimatuan / zenbat jende bizi ote da / zenbat istorio gertatzen ote dira / inork ez jakiteko / pixkanaka lotzen diren konspirazioak*, Txili Lauzirika, "Egunerokotasuna", Euriaren mailukadak, Apoka-liftin Kultur Elkarte, 2003.

57. *Metropoliaren / hormigoizko eraikinen / labirinto hertsia hauetan barna, [...] Nortasunik gabeko / ka-rrika hauen bozgorailuetatik / kapitaleko abots ahal guztidunak / izanen ez garenaren berri ematen digu. / Galduko ditugun aukerez ere, / mintzatzen zaigu. [...] Arau horiek / zeinek diren ere ez dakizkigu, / ez baititugu ulertzen. / Eta ez dakigu ere / noizbait ulertuko ditugun*, Hasier Larretxe, Bazaudete?, Meta-ziri, 2004.

58. [...] *poetak ingurua deskubritzen du eta inguru horrekin dialektikan jartzen da, batzuetan egune-roko gauza txikiak deskubrimenduak norberaren identitatearen agerpenera darama, bare sentipenak age-rian jarriz, beste kasu batzuetan, giro sozialarekin egiten du bat, eta mundu berri baten sormena eka-ri nahi luke*, Jon Kortazar, *Eguneko euskal poesiaren historia*, EHU, 2009.

59. *Atetik ikusi zuen korridorea: / zapatilak eta plater bat otordu baten arrastoei [...] Zokaloa ertze-tan hautsia, paperak alfonbra gainean. / Lehen aldiz Londonera joan zirenean erosi zuen / Hockneyren erreproduzioa lurrean, hormaren kontra*, Jon Benito, "Seinalea", Bulkada, Susa, 2010.

3.3. Estiloa

Ez da erraza poeta hauen estiloa definitzea. Oro har, ez diote estilo bati jarraitzen (Angel Erro izan ezik, molde klasikoko poesia lantzen baitu) eta ez dute inolako mugimendutan parte hartzen. Gainera, aski esperimentalak dira guztiak eta hainbeste baliabide lantzea eta probak edo jokoak egitea gustatzen zaizkie. Hala ere, hemen komentatuko ditugu bat datozen estilo-ezaugarri nagusiak:

3.3.1. Bertso askea

Estilo-baliabide hau erabilienu dugu euskal poeta berrien artean. Errimari eza, jakina, bertso-lerroen askatasunari loturik dago eta, nahiz eta noizean behin errima agertzen den, behingo kontutzat hartu behar da; oro har, beste baliabide batzuez markatzen dute erritmoa.

Poema-bilduma hauetan denetarik aurki dezakegun arren, aipatzekoa da idazle hauek erabiltzen dituzten bertso-lerroak oso luzeak izan ohi dira. Narrazio-tik gertu dagoen poesia lantzen dute, bada, eta kasu batzuetan (Beñat Sarasola-ren kasuan, esate baterako) prosa poetikoa ere azaltzen zaigu.

3.3.2. Errepikapenak

Lehen esan dugun bezala, bertso-lerroen neurririk eta errimari ezaengatik, beste zenbait baliabide erabiltzen dira erritmoa ezartzeko. Horietako bat (eta poeta hauen artean gehien erabiltzen dena) errepikapenak ditugu.

Hitz edo sintagma baten errepikapenaz behin eta berriro baliatzen dira, erritmoa sortzeko (Jon Gerediagak⁶⁰ eta Leire Bilbaok⁶¹ egiten duten gisa, esate baterako) edo efektista izateko (Hasier Larretxearen⁶² edo Fertxu Izquierdoren⁶³ poemetan ikusten den bezala).

60. *Badakigu haizeak ez duela beti [...] Badakigu ezpain xamur guzti horiek [...] Badakigu gaztaroaren ontziek [...] Badakigu jainko dislexiko horrek [...] Badakigu, teoria ikasi dugu eta badakigu [...] Badakigu, teoria ikasi dugu / eta jakin badakigu*, Jon Gerediaga, "Ikasle baten itauna gupidarik gabeko mai-suari", *Fitola balba, karpuki tui*, Pamiela, 2004.


61. *Behar du beste modu bat izan / salmahietako arropa bezala ez amaitzeko, [...] Behar du beste modu bat izan / erantzunak irribarre huts ez izateko, [...] Behar du beste modu bat izan / formak hautsiz mantentzeko, [...] Behar du beste modu bat izan / airu hutsez ez jokatzeko, [...] Behar du beste modu bat izan. / Beste modu bat. / Beste bat*, Leire Bilbao, "Behar du", *Ezkatak*, Susa, 2006.

62. *Galdu dut anaia. / Galdu, galdu dut bizitza erdia. / Galdu, galdu dut irria. / Galdu dut negarra. / Galdu, galdu dut esperantza. / Galdu dut konfiantza. / Galdu, galdu dut kasik dena. / Galdu, zu eta nire erdia. / Galdu, nintzena. / Erradazu, / zer da gelditzen zaidana?*, Haier Larretxea, *Azken bala*, Point de lune-tes, 2008.

63. *Ikusi nahi zintuzket arropa-dendan ikusi dudan lentzeria barruan / ikusi nahi zintuzket ilunabarra-ren kolorekoa den ardo beltzean / ikusi nahi zintuzket ene ametsak gordetzen dituzten izaretan / ikusi nahi zintuzket ulises bezala ene gerriaren mastari lotuta / ikusi nahi zintuzket biluzik jantzita pozik triste haserre goxo / bizitza puta honetako trenean bidaiatzen dugun minutu bakoitzean*, Fertxu Izquierdo, *Te-lebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek*, Alberdania, 2009.

3.3.3. Beste hizkuntza batzuen erabilera

la poeta guztiek beste hizkuntza batzuez idatzitako zenbait hitz edo bertso-lerro sartzen dituzte poemetan. Denek gaztelaniaz ere hitz egiten dutenez gero, ez da harritzekoa gaztelaniazko zenbait hitz edo esamolde erabiltzea, baina oro har ingelesa eta frantsesa ere erabiltzen dituzte (eta, Jon Gerediagaren kasuan, esate baterako, nederlanderaz idatzitako pare bat esamolde⁶⁴ aurkitzen ditugu).



Beste idazle batzuen aipuetatik at (aipuak jatorrizko hizkuntzaz idatzita agertu ohi dira eta), beraz, esan dezakegu autore hauek baliabide estilistiko bezala erabiltzen dutela erdara hainbat eratan: poema osoak beste hizkuntza batez idatziz (Txili Kauzirikaren⁶⁵ eta Mikel Peruarena Ansaren⁶⁶ kasuetan, adibidez), erdarazko bertso-lerroren bat euskarazko poema batean sartuz (Leire Bilbaok⁶⁷ egiten duen bezala) edo erdara inplizitua den hitz-jokoak eginez (Angel Erroren kasuan⁶⁸).

3.3.4. Kulturalismoa

Poeta hauen beste ezaugarri bat kulturalismoa (hau da, testuetan erreferentzia kulturalak agertzea) edo metaliteratura dugu. Gustatzen zaizkien sortzaileak adierazteko, testuak aberasteko eta irakurketa bat baino gehiago izateko (Aritz Gorrotxategi esaten duen bezala⁶⁹) erabiltzen dute baliabide hori, hainbat eratan.

64. Een. Twee. Drie keer. [...] Alleen maar liefde, klootzak. [...] Vervelende dag [...] Donderdag. Donderdag. Donderdag noch, Jon Gerediaga, "Heriotza eta kimuak (Exorzismoa)", *Jainkoa harrapatzeko tranpa*, Pamiela, 2007.

65. Euriaren mailukadak liburuan, "I can't" poema ingelesez idatzita dago; "Sueños", gaztelaniaz; eta "Chove sobre molhado", portugesez.

66. Esan ase arte liburuan, "Gauza guztien zergatia" poema ingelesez, portugesez, gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz idatzita dago; "Lisboako Kaleak Eta Munduko Jendeak", portugesez.

67. Do not walk outside this area / No pisar fuera de la línea / Lehiatila honetatik zerua ikusten nuelakoan / gerrikorik gabe ibili naiz, Leire Bilbao, "Hegazkinen hegoak", Scanner, Susa, 2011.

68. Ez baduzu nahi, andere liraina, / aipatzen zaitudan alde oro, / eta, sinetsiezadazu, anitzetan da, / jainkoen haserretarako gezurra erran dezadan, / izenez aldatu, Casta, / edo bizimoduz, Angel Erro, "VI", *Eta harkadian ni*, Elkar, 2002.

69. Eguneroko irakurketan eta kezkatzen nauten gauzetan aurkitu ditut erreferentziak. Euskal Herrikoak gara baina konektatuta gaude mundu guztira, [...] Nik uste dut bi irakurketa maila daudela: bata da nobelabait irakurketa normala eta bestea da idazlearen bagajeari lotutako hori. Nik uste dut idazlearen bagajeak, aipuek eta erudizioak ez dutela oztopatu behar lehenengo maila, irakurlearekiko harremana. Koadro bat ikustea bezala da, etxea pintatu dut eta etxea ikusi behar da, gero beharbada leihoak nola dauden jarrita, kea nola ateratzen den, atzeko kolorea nolakoa den... horiek erreferente batzuk dakizkienak gozatuko ditu agian. [...] Gainera iruditzen zait aberasgarria dela, pentsatu behar dugu irakurlearentzat autore berrietara edo ezagutzen ez diren autoreetara iristeko bide bat izan daitekeela, Aritz Gorrotxategiri egindako elkarrizketa, in *Hitzen Uberan*, 2011ko maiatzaren 5ean.

Idazle horiek 1975. eta 1984. urteen artean jaio zirenez gero, haiek erabilitako erreferentziak gutxi gora behera berdinak direla pentsa daiteke. Hala ere, guztiz kontrakoa gertatzen da. Nahiz eta poema-bilduma hauetako erreferentziak anitzak diren, kasu batzuetan baino ez datoz bat.

Noizean behin literatura edo filosofia klasikoaren zenbait erreferentzia badaude ere (Angel Erro eta Aritz Gorrotxategiren kasuetan batez ere: Aristotele, Homero, Horazio, Sokrates, Voltaire, Virgilio eta abar), oro har, XX. mendeko hainbat herritako idazleen aipamenak egiten dituzte poetek: Vladimir Maiakovski, Marguerite Duras, Lêdo Ivo, Elfriede Jelinek, Irene Nemirovski, Pablo Neruda, Leopoldo María Panero, Alejandra Pizarnik, Dylan Thomas eta abar.

Ez dira ugari, aitzitik, aipatutako euskal idazleak. Gehien azaltzen direnak, dena den, “klasikoak” dira (Bernardo Atxaga, Xabier Lizardi, Jon Mirande, Joseba Sarrionandia...) eta 90ko hamarkadako idazle pare bat (Kirmen Uribe, Jon Maia, Unai Iturriaga...) noizean behin baino ez dugu aurkitzen. Era berean, ikertzen ari garen idazleek ez dute elkar aipatzen, kasu batean izan ezik: Beñat Sarasolak Angel Erroren aipamena⁷⁰ egiten duenean.

Musikariak ere aurki daitezke poeta hauen aipamenen artean, zenbait herritakoak, oso estilo desberdinak lantzen dituztenak eta gehienak XX. mende-koak: Anari, Anthony & The Johnsons, Bob Dylan, Jeff Buckley, Jimmy Hendrix, Joy Division, Lisabö, Manu Chao, Mikel Laboa, Miles Davies, Moby, Mogwai, Nacho Vegas, Nosoträsh, Ojos de Brujo, Parabellum...

Azkenean, pop kulturari edo guztiz gaur egungoak diren gauzei egindako erreferentziak aipatu behar dira: Cortefiel, *facebook*, *google*, HIESa, Jessica Fletcher, Juan Tamariz, McDonalds, Rasputin edo Sugus bezalakoak. Ez dira denboraz kanpoko aipamenak, baizik eta poeta hauek bizi diren egunerokotasunaren isla.

3.4. Ondorioak

Aurreko hamarkadako idazleekin gertatzen zen moduan, poeta hauek ez dute literatura-mugimendurik osatzen. Literatura-mugimendu bat sortzeko, estilo eta arte-kezka bereak dituzten zenbait autore behar dira, eta lan honetan ikertu ditugun idazleekin, aitzitik, ez da hori gertatzen.

Nahiz eta zenbait ezaugarri komun dituzten (hainbat ezaugarri pertsonal, gai eta estilo-baliabide...), horiek ez dira erabakigarriak belaunaldi berri bat sortu dela adierazteko. Bat datozen gaiak, adibidez, gai “unibertsalak” izan ohi dira, edozein garaitan edozein estilotik landu direnak.

Postmodernitatea bizi duten idazle hauek literaturaren historia osoko eragin guztiak jaso dituzte, garai guztietako ia edozein herritako idazleak irakurri ahal izan dituzte eta. Horiek horrela, literatura-mugimendu horren eklektizismoa eta aniztasuna erabiltzen dituzte haiek ere poesia idaztean.

70. [...] bestela berrito beste behin / ere angel erro itxoiten egongo / da, Beñat Sarasola, “S”, Alea, Susa, 2009.

Horren ondorioz, oso poesia desberdina lantzen dute. Gainera, plazerraren-gatik idazten dutenez gero, ez dute merkatuak agindu ahal duen estetika lantzen eta nork bestelako bideetatik eramaten du esperimenez. Esperimenez hori gorabehera, ezin dugu esan poesian berrikuntzarik egin dutenik. Egia da bere estiloak askeak eta esperimenez direla, baina esperimenez hori poeta bakoitzak duen berezko bide berriak probatzeko desio pertsonalari dagokio –eta ez, ordea, ezarritako etikarekin apurtzeko desioari, “ezarritako etikarik” ez baitago.

Horrenbestez, “ni” poetikoa aurkitzeko (eta ez literatura-munduan ezer aldatzeko) grinarekin egiten dituzte esperimenez, ezer berririk sortuko ez dutela jakinaren gaineran.

4. Azken hitza

Ikerlan honen hasieran esan den bezala, aztertu ditugun poetak 2001. eta 2011. urteen artean bizpahiru poema-bilduma argitaratu dituztenak dira, idazle baten poesia-ibilbidea behingo kontua den ala ez adierazteko liburu bat argitaratzea nahikoa ez baita. Hala ere, egokia litzateke hamar urte horietan liburu bakarra duten idazleak aipatzea (nahiz eta horien ikerketa zehatza egingo ez dugun), euskal poesia berriaren panorama osoagoa izateko. Beraz, honako hauek dira:

- Nerea Beldarrain, 1981. urtean Donostian jaioa: *Abernua: hutsaren oroitzapena* (Bermingham, 2010).
- Imanol Epelde, 1977. urtean Zarautzen jaioa: *Komuneko paperean* (Egarrora, 2009).
- Hedoi Etxarte, 1986. urtean Iruñean jaioa: *Suzko lilia* (Susa, 2008).
- Izaskun Gracia Quintana, 1977. urtean Bilbon jaioa: *Eleak eta beleak* (Arabako Foru Aldundia, 2007).
- Ibai Iztueta, 1977. urtean Zegaman jaioa: *Oro bare* (Utriusque Vasconiae, 2008).
- Amaia Jauregizar, 1985. urtean Gernikan jaioa: *Azazkalak jaten* (Euskaltzaindia / BBK, 2009).
- Kemen Lertxundi, 1979. urtean Ondarroan jaioa: *Galdutako Zubixak* (Gaztelupeko Hotsak, 2008).
- Asier Sarasola, 1976. urtean Lezon jaioa: *Poems everybody, poems!* (Bat-Bada, 2009).
- Urtzi Zubizarreta, 1983. urtean Donostian jaioa: *Kartzelako neurriak* (Ataramiñe, 2008).

Argitaratzeko data kontuan hartuz gero, ikusiko dugu poema-bilduma horiek 2007. eta 2010. urteen artean (hau da, hamarkadaren azken urteetan) argitaratuak izan zirela. Hori dela eta (argitalpen horiek berri samarrak direnez gero), oso goiz da esateko ea poeta horiek bere literatura-ibilbidea lantzen jarraituko duten ala ez.

Poema-bilduma horien zerrenda ikustean, bestalde, datu bat deigarri gertatzen da: gehienak kultur elkarteek edota argitaletxe txikiek argitaratuak izan dira, orain arte ikertu ditugunekin gertatzen ez zena (Hasier Larretxearen eta Txili Lauzirikaren lehenengo liburuak⁷¹ bakarrik kultur elkarteek argitaratuak izan ziren), eta beste hiru liburu argitaratu ziren sarituak izan ondoren⁷² (lehen aztertutako liburuaren artean, Mikel Peruarena Ansaren *Edan ase arte* eta Angel Erroren *Eta harkadian ni* poema-bildumak izan ziren sarituak izateagatik argitaratu ziren bakarrik).

Lehen begiratuan, ematen du poesia munduan zerbait mugitzen ari dela. Egia da argitaletxe handien banaketa-sistema hobea dela kultur elkarteena eta argitaletxe txikiarena baino (eta liburu saridunak argitaratzen dituztenena, behin baino gehiagotan salatu den bezala⁷³) eta horrenbestez, horien ohiartzuna askoz txikiagoa da, baina zalantzarik gabe ikus daiteke lan ona egiten ari direla poeta berriak ezagutzera emateko.

Kontuan hartu behar da argitalpen horiek hirugarren milurtekoaren lehenengo hamarkadako azken urteetan egin direla. Beraz, itxaron behar izango dugu, hurrengo (hasi berria den) hamarkadan literatura-merkatutik at egindako ekimen horiek egiten jarraitzen direnentz ikusteko.

Momentuz, oso kritika onak (batez ere, Nerea Beldarrain, Hedoi Etxarte eta Ibai Iztuetak jaso dituztenak) izan dituzten poeta gazte horien lanak irakurri eta gozatu behar izango ditugu, etorkizunean eskainiko diguten esperoan.

71. Ikusi dugun bezala, Hasier Larretxearen *Bazaudete? plaque*-a eta Txili Lauzirikaren *Euriaren mailukadak*, hurrenez hurren, Metazirik eta Apokalifitin Kultur Elkarteak argitaratuak izan ziren.

72. Nerea Beldarrain *Abernua: hutsaren oroitzapena* (2009ko Iparragirre Saria), Amaia Jauregizarren *Azazkalak jaten* (2008ko Felipe Arrese Beitia Saria) eta Izaskun Gracia Quintanaren *Eleak eta beleak* (2006ko Ernestina de Champourcin Saria). Ziur aski kasualitatea baino ez den arren, aipatzekoa bada idazle berrietako talde honetan dauden emakume bakarrik argitaratuak izan direla.

73. Askotan gertatzen da horrelako lehiaketetako lanak, literaturako zirkuitu ofizialetik kanpo geratzea, eta uste dut hau konpondu behar den kontu bat dela, gertatzen baita lan onak, eta kasu honetan, poesia zaleentzat, guztiz ezkutuan geratzea, Juan Ramon Makuso, "Gizakiaren hausterrea", in *El Diario Vasco*, 2011ko irailaren 16an.

5. Bibliografia

5.1. Liburuak

BATZUK: *A ponte das palabras. Poesía vasca 1990-2000 / Hitzeko zubia. Euskal poesia 1990-2000*, 1. arg. Compostela, Letras de cal, 2000.

BENITO, Jon: *Aingurak erreketan*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2001.

—: *Bulkada*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2010.

BILBAO, Leire: *Ezkatak*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2006.

—: *Scanner*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2011.

BORDA, Xabi: *Birika zatiak*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2004.

—: *Gulliverren lokarriak*, 1. arg. Donostia, Elkar, 2009.

ERRO, Angel: *Eta harkadian ni*, 1. arg. Donostia, Elkar, 2002.

—: *Gorputzeko humoreak*, 1. arg. Irun, Alberdania, 2005.

GEREDIAGA, Jon: *Fitola balba, karpuki tui*, 1. arg. Iruñea, Pamiela, 2004.

—: *Jainkoa harrapatzeko tranpa*, 1. arg. Iruñea, Pamiela, 2007.

GORROTXATEGI, Aritz: *Taxi bat Hamlet-entzat*, 1. arg. Donostia, Hiria, 2002.

—: *Zaldi hustuak*, 1. arg. Donostia, Erein, 2007.

—: *Hariaz beste*, 1. arg. Donostia, Erein, 2011.

IZQUIERDO, Fertxu: *Gerratearen aztarnak*, 1. arg. Iruñea, Pamiela, 2007.

—: *Telebista antenetan atsedena hartzen dute txoriek*, 1. arg. Irun, Alberdania, 2009.

IZTUETA, Ibai: *Oro bare*, 1. arg. Donostia, Utriusque Vasconiae, 2008.

JAUREGIZAR, Amaia: *Azazkalak jaten*, 1. arg. Bilbao, Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2009.

KORTAZAR, Jon: *Euskal Literatura XX. mendean*, 2. arg. Zaragoza, Prames, 2003.

KORTAZAR, Jon (zuz.): *Egungo euskal poesiaren historia*, 1. arg. Bilbao, EHU, 2009.

KORTAZAR, Jon (ed.): *Un puente de palabras. 5 jóvenes poetas vascos*, 1. arg. Madrid, Centro de Lingüística Aplicada Atenea, 2005.

LARRETxea, Hasier: *Bazaudete?*, 1. arg., Iruña, Metaziri, 2004.

—: *Azken bala*, 1. arg. Sevilla, Point de Lunettes, 2008.

—: *Atakak*, 1. arg. Irun, Alberdania, 2011.

LAUZIRIKA, Txili: *Euriaren mailukadak*, 1. arg. Arrasate, Apokalifto Kultur Elkarte, 2003.

—: *Tatuia bat ene begietan*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2008.

PERUARENA ANSA, Mikel: *Eguraldiaz Hizketan*, 1. arg. Donostia, Elkar, 2003.

—: *Edan ase arte*, 1. arg. Irun, Kutxa Fundazioa, 2006.

SARASOLA, Beñat: *Kaxa huts bat*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2007.

—: *Alea*, 1. arg. Zarautz, Susa, 2009.

5.2. Artikuluak eta elkarrizketak

ARANZABAL, O.: "Susmoa dugu, euskal argitaletxeek, gaur egun ez dutela nahi poesia libururik argitaratu", *Noticias de Gipuzkoa*, 2010ko azaroaren 14an.

Aritz Gorrotxategiri elkarrizketa:
<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/aritz-gorrotxategiri-elkarrizketa>, 2011ko maiatzaren 5ean.

ASTIZ, Iñigo: "Irakurzaletasun pilulak", *Berria*, 2012ko apirilaren 4an.

"Autoedizioaz, bi hitz",
<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/erreportajeak/item/autoedizioaz-bi-hitz>, 2010eko azaroaren 10ean.

AZURMENDI, Nerea: "Ellas escriben", *El Diario Vasco*, 2008ko maiatzaren 17an.

BEREZIARTUA, Gorka: "Idaztea nahiko ekintza inozoa da seguruenik", *Argia*, 2007ko irailaren 2an.

Hasier Larretxeari elkarrizketa:
<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/hasier-larretxeari-elkarrizketa>, 2011ko azaroaren 27an.

IPARRAGIRRE, Pilar: "Mikel Peruarena: 'Maila pertsonala eta herriarekiko kezka uztartzen saiatu naiz'", *Argia*, 1921. alea, 2003ko azaroaren 23an.

Jon Benitori elkarrizketak:

<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/jon-benitori-elkarrizketa>, 2010eko abenduaren 23an.

<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/leire-bilbaori-elkarriketa>, 2011ko otsailaren 21ean.

Leire Bilbaori elkarrizketa:

<http://uberan.org/index.php/gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/leire-bilbaori-elkarriketa>, 2011ko urriaren 13an.

OTAEGUI IMAZ, Lourdes: "Poesía vasca del siglo XX", <http://www.basqueliterature.com/es/basque/historia/hogeimende/poesia>

5.3. Kritikak

ABAROA, Aitor: "Amodio emegatuak", *Berria*, 2008ko azaroaren 28an.

ARREGI DIAZ DE HEREDIA, Rikardo: "Anjel Erra", *El Periódico de Álava*, 2003ko uztailaren 23an.

ASURMENDI, Mikel: "Ezkataz gain edota azpian, emakumea borboka", *Irunero*, 2006ko apirilean.

—: "Erroetatik jariatua edo ernea", *Irunero*, 2006ko ekainean.

—: "Auzo bakarra da mundua", *Irunero*, 2007ko ekainean.

—: "Tarte beteko eskaintza iradokigarria", *Irunero*, 2007ko uztailan.

—: "Hutsa ez da ezdeusa", *Irunero*, 2007ko urrian.

—: "Isis and Pandora (elemental Mr. Watson)", *Irunero*, 2009ko maiatzan.

—: "Ainguraren lasta bulkadaz laxatua", *Irunero*, 2011ko maiatzan.

AYERBE, Mikel: "Kaxa hutsarekin jolasten", *Berria*, 2007ko apirilaren 29an.

—: "Hitzaren arnasa lanbro", *Berria*, 2008ko otsailaren 3an.

—: "Fosilak eta poemak", *Berria*, 2008ko maiatzaren 25ean.

—: "Poemen omenez", *Berria*, 2009ko uztailaren 5ean.

CARRERE, Joxemari: "Ez dira batere arinak gazteen kezak", *Gara*, 2001eko azaroaren 10ean.

EGAÑA, Ibon: "Ibiltariaren galderak", *Euskaldunon egunkaria*, 2002ko irailaren 7an.

—: "Hutsaren erditik", *Berria*, 2004ko maiatzaren 22an.

—: "Bizirik hutsera, hutsetik bizia", *Berria*, 2007ko ekainaren 3an.

EPALZA, Aingeru: "Musen eskolako euskal eskola", *Nabarra*, 2004ko otsailan.

ESTANKONA, Igor: "Lasai eta tinko", *Deia*, 2001eko abenduaren 28an.

—: "Gauzak kontatzen dituen poesia", *Gara*, 2002ko martxoaren 16an.

—: "Labur eta zorrotz", *Gara*, 2003ko martxoaren 29an.

—: "Barruak hustu", *Deia*, 2003ko urriaren 28an.

—: "Stanislavskiren sistema", *Deia*, 2004ko ekainaren 29an.

—: "Metal zaporea", *Deia*, 2004ko azaroaren 9an.

—: "Hatxe baten diferentzia", *Deia*, 2006ko otsailaren 28an.

—: "Atsegin dut tipo hau", *Deia*, 2007ko uztailaren 27an.

—: "Pasatuko zaio", *Argia*, 2009ko urtarrilaren 18an.

—: "Esnatzean", *Argia*, 2009ko apirilaren 12an.

—: "Lehengo utopien ostean", *Argia*, 2009ko maiatzaren 17an.

—: "Biolento baten liburua", *Argia*, 2009ko ekainaren 14an.

—: "Zerebro zatiak", *Argia*, 2009ko urriaren 4an.

—: "Hiria pertsonifikatua", *Argia*, 2009ko abenduaren 27an.

—: "Ezagutzen ez duguna, galdu duguna", *Argia*, 2010eko abenduaren 12an.

—: "Hari filosofala", *Deia*, 2011ko maiatzaren 28an.

—: “Maiakovskiren musak”, *Argia*, 2011ko azaroaren 6an.

—: “Nola atera atakatik”, *Deia*, 2011ko azaroaren 19an.

GALARRAGA, Aritz: “Oro ez da errana”, *Gara*, 2005eko abenduaren 24an.

—: “Buia itsaso erdian”, *Gara*, 2006ko martxoaren 25ean.

—: “Itsasontzia berreraiki”, *Gara*, 2007ko ekainaren 2an.

—: “Bizi poza”, *Gara*, 2008ko apirilaren 19an.

GOROSTARZU, Ione: “Scanner”, *Galtzaundi*, 2001ko urriaren 11n.

GUILLAN, Oier: “Bizitza duten hitzak”, *Gara*, 2004ko ekainaren 12an.

JUARISTI, Felipe: “Eta ironia lur”, *El Diario Vasco*, 2003ko urtarilaren 12an.

—: “Atzerriaz”, *El Diario Vasco*, 2004ko urriaren 8an.

—: “Airea da sakonena”, *El Diario Vasco*, 2005eko azaroaren 11n.

—: “Belaunaldia”, *El Diario Vasco*, 2007ko apirilaren 27an.

—: “Argitasuna”, *El Diario Vasco*, 2007ko uztailaren 20an.

—: “Bizitzaz”, *El Diario Vasco*, 2007ko abenduaren 21ean.

—: “Bizitzaren kanta”, *El Diario Vasco*, 2008ko otsailaren 8an.

—: “Iniziazio-errittoa”, *El Diario Vasco*, 2008ko urriaren 10ean.

—: “Balak itzak”, *El Diario Vasco*, 2008ko abenduaren 5ean.

—: “Errealitatea”, *El Diario Vasco*, 2009ko apirilaren 3an.

—: “Poesia-metodoa”, *El Diario Vasco*, 2009ko urriaren 23an.

KORTAZAR, Jon: “Aingurak eta galderak Benitoren poema”, *El País*, 2002ko otsailaren 4an.

—: “Denok gara Ahab kapitaina”, *El País*, 2002ko azaroaren 4an.

—: “Klasizismoaz”, *El País*, 2002ko abenduaren 30ean.

—: “Hizkuntza berria”, *El País*, 2004ko urriaren 24an.

—: “Haikua materian”, *El País*, 2004ko azaroaren 14an.

—: “Gorputzeko zeruak”, *El País*, 2005eko azaroaren 6an.

—: “Txikitasunaren isladak”, *El País*, 2006ko urriaren 7an.

—: “Betetzeko kaxa”, *El País*, 2007ko urriaren 29an.

—: “Pentsakizun poesia”, *El País*, 2008ko otsailaren 18an.

—: “Eleak eta beleak”, *El País*, 2008ko maiatzaren 19an.

—: “Oro bare, oro dardar”, *El País*, 2008ko ekainaren 30ean.

LANDABASO, Goizalde: “Gerratearen aztarnak”, *Radio Euskadi*, 2007ko apirilaren 8an.

—: “Kaxa huts bat”, *Radio Euskadi*, 2007ko ekainaren 10ean.

—: “Jainkoa harrapatzeko tranpa”, *Radio Euskadi*, 2008ko otsailaren 17an.

LOPEZ ZILUAGA, Leire: “Erdibidean”, *Berria*, 2011ko urriaren 16an.

MAIA, Ainara: “Literatura (biz)hitzara”, *Gara*, 2010eko abenduaren 30ean.

—: “Filosofo-har(r)iei segika”, *Gara*, 2011ko urriaren 29an.

—: “Iluntasunean argia”, *Gara*, 2012ko martxoaren 17an.

MAKUSO, Juan Ramón: “Subjektibitatea”, *El Diario Vasco*, 2001ko martxoaren 11n.

—: “Entzuteko denbora”, *El Diario Vasco*, 2011ko maiatzaren 6an.

—: “Gizakiaren hausterrea”, *El Diario Vasco*, 2011ko irailaren 16an.

—: “Pasabidea”, *El Diario Vasco*, 2011ko azaroaren 18an.

—: “Hiru kilo seiehun”, *El Diario Vasco*, 2011ko abenduaren 16an.

MARKULETA, Gerardo: “Zaharrak berri-berri”, *Berria*, 2003ko uztailaren 19an.

OLANO, Jon: “Arruntasunari gorazarre”, *Gara*, 2008ko ekainaren 14an.

—: “Txinpartak”, *Gara*, 2008ko azaroaren 28an.

—: “Neurriak”, *Gara*, 2009ko urtarrilaren 30ean.

—: “Laranja urdinak”, *Gara*, 2009ko apirilaren 10ean.

—: “Zer eta nola”, *Gara*, 2009ko maiatzaren 6an.

OTXOTEKO, Pello: “Edertasuneransko ihesaldia”, *Egan*, 2010eko ekainean.

RETOLAZA, Iratxe: “Ut traditionis et transgressionis”, *Berria*, 2006ko martxoaren 28an.

—: “Ezinaren poetika”, *Berria*, 2006ko apirilaren 18an.

—: “Ezkatak”, *Berria*, 2007ko otsailaren 10ean.

—: “Geografia uzkurak”, *Berria*, 2007ko apirilaren 8an.

ROJO, Javier: “Azalaren hutsa”, *El Correo*, 2003ko martxoaren 5ean.

—: “Eguraldiaz hizketan”, *El Correo*, 2003ko urriaren 29an.

—: “Hitz misterioitsuak”, *El Correo*, 2004ko uztailaren 14an.

—: “Hutsuneak”, *El Correo*, 2005eko urtarrilaren 19an.

—: “Itsasoa eta ispilua”, *El Correo*, 2006ko apirilaren 12an.

—: “Poesia militantea”, *El Correo*, 2007ko martxoaren 21an.

—: “Poesiaren amaiera”, *El Correo*, 2007ko urriaren 10ean.

—: “Bizitzaren aurrean”, *El Correo*, 2008ko otsailaren 9an.

—: “Poeta gaztea”, *El Correo*, 2008ko urriaren 25ean.

—: “Lubakia eta herdoila”, *El Correo*, 2009ko urtarrilaren 31n.

—: “Poesia ariketak”, *El Correo*, 2009ko ekainare 13an.

—: “Unibertsoa eskuan”, *El Correo*, 2009ko urriaren 24an.

—: “Poesia hirian”, *El Correo*, 2009ko abenduaren 19an.

—: “Loturetan sakonduz”, *El Correo*, 2011ko urriaren 22an.

—: “Leku bila”, *El Correo*, 2011ko azaroaren 19an.

SARASOLA, Beñat: “Gatazka eta maitasuna”, *Berria*, 2009ko otsailaren 8an.

—: “Emozioen isurtze berezkoa”, *Berria*, 2009ko martxoaren 22an.

—: “‘Spleen’ eta ‘ennui’”, *Berria*, 2009ko azaroaren 22an.

—: “Poeta libre bat”, *Berria*, 2010eko azaroaren 28an.

—: “Jainkoa harrapatzeko tranpa”, *Paperezko ZuZeu*, 2010ko abenduan.

—: “Gorputzeko humoreak”, *Paperezko ZuZeu*, 2010eko abenduan.

SARRIEGI, Patxi: “Lerro arteko ustekabe militanteak”, *Deia*, 2007ko maiatzaren 4an.

—: “Ironiazko begiratu kritikoa”, *Deia*, 2007ko ekainaren 22an.

—: “Eguneroko gogoeten islak”, *Deia*, 2008ko azaroaren 25ean.

—: “Errealitatearen behelainozko begiradak”, *Deia*, 2009ko otsailaren 24an.

—: “Etsipenezko itxaropen aldaria”, *Deia*, 2010ko otsailaren 2an.

SUAREZ, Castillo: “Aingurak erreketan”, *Guaixe*, 2001eko urrian.

ZALDUA, Iker: “Idazle errotua”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2007ko urtarrilaren 13an.

—: “Poesiari return”, *Noticias de Gipuzkoa*, 2007ko ekainaren 2an.

—: “Barrutik kanpora”, *Gara*, 2011ko abenduaren 10ean.

5.4. Loturak

Argia egunkari elektronikoa: www.argia.com

Armiarma sarea: www.armiarma.com

Bazka. Literaturaren soziologia batentzako web-orria: www.bazka.info

Euskal Hiztegia:
<http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>

Euskal Idazleen Elkarte: www.idazleak.org

Fertxu Izquierdoren bloga:
fergrado.blogspot.de

Hitz egiteko modu bat (Beñat Sarasolaren
bloga): bsarasola.wordpress.com

Hitzen uberan: www.uberan.org

Literaturaren zubitegia:
<http://zubitegia.armiarma.com>

Nontzeberri. Kultura sarean:
www.nontzeberri.com

Txus Aranbururen eta Mikel Peruarena
Ansaren bloga:
<http://edanasearte.blogspot.de>

Volgako Batelariak-en bloga:
<http://eibar.org/blogak/volga>

En este trabajo se resume la investigación llevada a cabo sobre los procesos expertos en la construcción de imágenes y experiencias de lo nuestro (algo que forma parte de la construcción de las identidades) a través del patrimonio cultural en los contextos vasco y catalán.

Palabras Clave: Patrimonio cultural. Expertos. Identidad. Vasco. Catalán.

Lan honetan, kultura-ondarearen bidez, gureari buruzko irudi eta esperientzien eraikuntzaren inguruan (identitateen eraikuntzari dagokion zerbait) burututako prozesu espezializatuez gauzatutako ikerketa laburbiltzen da, Euskal Herriko eta Kataluniako testuinguruan.

Giltza-Hitzak: Kultura-ondarea. Adituak. Identitatea. Euskalduna. Kataluniarra.

Ce travail résume les recherches effectuées sur les processus experts de la construction d'images et d'expériences de ce que nous sommes (quelque chose qui fait partie de la construction des identités) à travers le patrimoine culturel dans les contextes basque et catalan.

Mots-Clés : Patrimoine culturel. Experts. Identité. Basque. Catalan.

1. Este texto se basa en el informe presentado bajo el auspicio de la beca Eusko Ikaskuntza-Institut d'Estudis Catalans del año 2009.